

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

2017-12-22 OSTIRALA / 623. ZENBAKIA / 2. AROA
SAKANAKO ASTEKARIA GUAIXE.EUS TOKIKOM

GABONETAKO OPORRALDIA

Honako egunetan jasoko
duzue hurrengo
GUAIXEA: Ilbeltzaren 12ean.

Ongi
izan!



Anfas, zerbitzua egoki

Lakuntzako egoitza azaroan mustu ondoren, elkarteak eskaintza egoki ematen ari da / 2-3

**Urte hasieratik
aurrera kamioiek
bidesaria pagatu
beharko dute
Etzegaraten / 5**

**Altsasuko
Emakumeen
Berdintasun
Zerbitzuaren
25. urteurren festa / 7**

**Igandean jokatu zen
Etxarriko aurreneko
txakur krosak 70
parte hartzaile
izan zituen / 20**


**Jokin Alegriak Gure
aitun-amiñak saileko
lehen koadroak
erakusgai jarri ditu
Lakuntzan / 23**

**Sakanako
belenzaleen elkarteak
jaiotzen erakusketa
handia prestatu du
Olatzagutian / 12**

HAU EZ DA ZABORRA,
ONGARRIA BAIZIK



**Eman izena Altsasuko
5. edukiontzian:
900 730 450
Hasiera data:
Urtarrilak 15**

 residuos de navarra
nafarroako hondakinak

Mank
s a k a n a



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Adimen urritasunak erreferentzia zentroa du

Azaroan mustu zuen Anfas elkarteak Lakuntzan duen egoitza berria, eta jada bertako langileek nabaritu dute jende gehiagok ezagutzen duela eurek eskaintzen dituzten zerbitzuak. Haur zein familiendako hainbat programa eta aholkularitza eskaintzen du

lñaki Berastegi LAKUNTZA

Behin-behinekotasunarekin bukatu ondoren, Anfas elkarteak oinarri sendoak jarri nahi ditu Sakanan. Azaroan Lakuntzan zabalduko egoitza berriarekin hori lortzea zen helburua, adimen urritasuna edo garapenean zailtasunak dituzten pertsona eta euren familiei laguntzeko erreferentziako leku bat zabaltzea, eta badirudi apustua bere fruituak ematen hasi dela. “Azaroan mustu genuen lokala, baina apiriletik dihardugu hemen lanean. Aurretik, ikastetxeetan, osasun etxeetan edo kultur etxeetan aritzen ginen. Lakuntzako gela ireki ostean, nabaritu dugu gehiago ezagutzen gaituela jendeak, eta jende gehiago etortzen da. Kalitatezko zerbitzu bat eman dezakegu orain”, adierazi du Amaia Martinezek Lakuntzako Anfas lantokiko logopedak.

Bi multzo nagusitan banatzen dira Lakuntzako egoitzan eskaintzen diren zerbitzuak: batetik, haurren eta gazten garapena, eta, bestetik, familiendako programak. Haur eta gazteen garapenaren alorrean, hiru programa daude. Arreta goiztiarra da programarik arrakastatsuenena, 0 eta 6 urte bitarteko haur, familiari eta inguruari zuzendutako ekimenak biltzen ditue-



Anfaseko haurrak tailerretan. ANFAS

na: “Arreta goiztiarraren kasuan, haur bakoitzaren zailtasunen arabera, helburu batzuk finkatzen dira. Arlo motorrekoak, hizkuntzarekin lotura dutenak, komunikazioa edo beste mota bateko zailtasunak izan daitezke. Helburuak finkatzen dira, eta gero jarraipen bat egiten da”, esan du Martinezek.

Dena den, arreta goiztiarra programaren barruan, bi talde daude: 0-3 urte bitartekoa, eta 3-6 urte bitarteko haurren taldea. Sei urtetik gora dituzten haurrei zuzenduta dago gaitasun akade-

miko sozial, eta komunikaziokoak izena duen programak. Martinezek dioenez, derrigorrezko hezkuntza bukatu arte eman dezake izena jendeak programa honetan: “Irakurketa, idazmena, matematikak, gaitasun sozialak edo autonomia lantzea du helburu programa honek. Orokorrean, gaitasun akademikoak, sozialak eta komunikazioa lantzen dira”.

Haur eta gazteen garapenaren alorreko hiru garren hanka psikomotrizitate praktika da, haurren ekintza eta jolas esponta-

neoa oinarritzen dena. Garapen integrala ematen da, haurren segurtasun fisikoa eta emozionala bermatuz.

Familiak

Baina ez da soilik adimen urritasuna edo garapenean zailtasunak dituzten haurrendako egoitza, haur horien familiendako ere erreferentzia zentroa izan nahi du egoitza horrek eta bertako lantaldeak. Informazioa eta aholkularitza programaz aparte, familiendako formakuntzarako programa ere martxan dago. Batetik, guraso eta anai eta arrebak txikiarekin osatutako taldeak daude, haurren ahalmek garatu, familiarekiko loturak indartu eta oinarritzko formakuntza lortzea dira helburua.

Horrez aparte, TEA sekzioa aipatu behar da. Umeen edo nerabeen balorazioak egiteaz gain, familiendako eskolak antolatzen dituzte, familiek zein profesionalak egunerokotasunean dituzten oztupoak azaldu, eta horien aurrean aplikatu beharreko estrategiak garatzea helburu duen programaren atala. “Oso berria den programa bat da, bilera bat baino ez dute egin. Finean, inguruko familiek dituzten beharrak zeintzuk diren aztertu eta horien aurrean zer egin jakiten erakusten zaie. Familiaren interesen arabera egituratzen da, babes emozionala ere ematen zaie, eta familiak euren artean laguntzen dira”.

Horretarako, arlo anitzeko lantaldea aritzen da Lakuntzako egoitzan Martinezek dioenez: “Ni logopeda naiz, eta hizkuntza gaitasunak lantzen ditut. Psikologo eta psikomotrizista bat ere badugu, gizarte langile bat, familiaren aholkularitza arduratzen dena batik bat, eta gero Lourdes

Cuesta, ibarreko Anfas elkar-tearen arduraduna.

Lan egiterako orduan, lantaldea familien beharretara moldatu ohi da. “Haur eskolara joaten ez diren haurrak goizean etortzen dira, eta gainontzekoak arratsaldetan. Saioak banaka edo familiako senide batekin batera egiten dira, familiako kideekin egiten den lana oso garrantzitsua baita”, azaldu du Martinezek.

Egoitza Lakuntzan zabaldu duten arren, oraindik ere egoitzatik kanpo egun batzuetan lanean aritzen direla argitu du Martinezek: “Arreta goiztiarraren arloan, Altsasuko Txirinbulu haur eskolan gela bat uzten digute. Koordinazio handia dugu eskola horrekin. Beste eskolei dagokionez, urte hasieran eta akaberan elkartzen gara, tartean ezer berezirik gertatzen ez bada. Osasun etxeekin ere harremanetan gaude, behar izango balitz”.

Eskaintza zabalagoa

“Urtetik urtera jende gehiago etortzen da, zerbitzua ezagunagoa bihurtzen ari da, eta espero dugu horrela jarraitzea. Lakuntzako egoitzan dugun haurrik zaharrenak 13 urte ditu, baina espero dugu jende helduagoa etortzea, eta programa gehiago zabaltzea. 21 urte bete arte, derrigorrezko hezkuntza bukatu arte, etor daitezke gure ekintzetan parte hartzera”, nabarmendu du Martinezek. Hain zuzen ere, Martinezendako aisialdiko

PROGRAMETAN 25 FAMILIA DAUDE. ARRAKASTATSUENA: HAURREN ARRETA GOIZTIARRA DA

Ostiralero

SAIOA

9:30ean

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astelehenetik ostegunera

Metropoli forala

9:00etatik 11:00etara

Esataria: Eneida

Gaurko gaiak:

- Amaia Martinezekin Anfasen Sakanako zerbitzuez
- Olentzero ordutegiak
- Eta Sakanako hainbat albiste

beleixe

107.3 FM

www.guaixe.eus-en ON LINE



Familiendako eskolak ere antolatzen dituzte. ANFAS



Lakuntzako gela ireki dutenetik, jende gehiagok ezagutzen ditu. ANFAS

programa bat zabaltzea da etorkizun hurbil baterako buruan duten erronka nagusia: "Momentuz, ez dugu eskari nahikorik programa hori zabaltzeko. Gutxienez, hiru pertsona behar dira. Aisialdiko programaz aparte, beste eskualde batzuetan eskaintzen diren programa guztiak zabaldu nahiko genituzke: informatika edo autogestioa lantzea helburu duena, besteak beste".

Horri lotuta, Martinezek gehitu du arreta goiztiarrean dutela eskaera gehien: "uste dugu kontzientzia gehiago dagoela haurrekin, lehen ez zen hainbeste lan egiten haur txikiekin. Orain, kasuak lehenago detektatzen dira. Zaharragoak direnen kasuan, agian, euren beharrak aseta daude jada. Eskola batzuetan, 16 urte arte laguntza ematen diete, eta gero, batzuetan, Isterria bezalako zentroetara joaten dira".

Programen kostuak

Eskaintzen diren programen kostuari dagokionez, 0-3 urteko arreta goiztiarra %100ean diruz lagunduta dago. Arreta goiztiarreko bigarren taldeari dagokionez, 3-6 urte bitarteko haurrei zuzendutakoa, astero egiten den

45 minutuko saio batek hilabetean 62 euroko kostua du. Gaitasun sozial akademiko eta komunikazioko programaren barruan, banaka egindako saioak 63,75 euro balio du hilero, eta taldean egindakoak 39 euro. Psikomotrizitate praktikari dagokionez, hilabetean, 40 euroko kostua du.

Familiendako programetara etorrira, aholkularitzak, informazioak eta guraso eta anai-arreba txikien taldea atalek ez dute kosturik. Teak sekzioaren barruan, balorazioek 270 euroko kostua dute, eta familiendako eskolak 130 euro balio du.

Argi dagoena da egoitza berri horri esker, Sakanak adimen urritasuna edo garapeneko zailtasunak dituzten haur eta euren familiei laguntzeko aurrera pausu bat eman duela, kalitatezko zerbitzu bat bermatzeaz aparte, zerbitzu gehiago sortzeko aukera lortu delako.

FAMILIENDAKO INFORMAZIO, AHOALKULARITZA ETA PRESTAKUNTZA ZERBITZUAK DITUZTE

Mankomunitatetik eskualdera, Sakana

Nafarroako Gobernuak Toki Administrazioa berrantolatzeke lege-aurreproiektua aurkeztu eta jendaurrean ilbeltzaren 9ra arte jarri du. Udalak eta kontzejuak mantendu, mankomunitateak desagertu eta eskualdeak sortuko lirakeke

SAKANA

Nafarroako Gobernuaren Gobernu Irekia atarian asteartez geroztik dago Toki Administrazioa berrantolatzeke lege-aurreproiektua eta 20 egunez ekarpenak egin daitezke. Haren helburua da Nafarroak eskualdeetan udalerrri-mailan dagoen desoreka pixkanaka murriztea, eta toki-gobernuari antolaketa-baliabide eta baliabide ekonomiko nahikoak ematea administrazio gisa duen zeregina erabat bete dezan. Izan ere, Nafarroak gaur egun duen toki administrazioa egitura zaharra da eta azken 25 urteetan beti aldatu nahi izan da.

Isabel Elizalde kontseilariak azaldu duenez, lege-proiektuaren asmoa da toki-zerbitzuen estaldura eta kalitatea hobetzea, beti ere "zerbitzu bakoitza herritarrengandik gertuen dagoen erakundeak ematea, behar bezala ematen duela bermatzen bada, betiere".

Eskualdea

Proiektua dagoen bezala onartzen bada, Nafarroa 11 zatitan banatuko da, eskualde izenekoa. Sakana eskualde horietako bat izanen da. Udalak eta kontzejuak mantenduko lirakeke. Kontzejuak egungo eskumenak mantenduko lituzkete. Udal eta eskualdeekin hitzarmenak egiteko aukera izanen dute. Desagertzeko, berriz, bi aukera lituzkete: propio eskatu edo bi hauteskundeetan hautagaitzarik ez aurkeztea.

Baina mankomunitateak desagertuko lirakeke. Ibarraren kasuan Sakanako Mankomunitatea eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen hiru mankomunitateak desagertzeko lirakeke. Azken hiru horiek bat egin eta eskualdearen menpe geldituko lirakeke. Izan ere, eskualde bakoitzak bost eskumen hartuko lituzke beren gain: uraren goihornikuntza, udalaz gairako



Arakilgo udal ordezkariak Toki Administrazioako zuzendari nagusi Patxi Lasarekin.

LEGEA ONARTU ETA URTEA BETE BAINO LEHEN ESKUALDEAK ERATZEN HASI BEHARKO LUKETE

hondakinen kudeaketa, gizarte-zerbitzuen kudeaketa, eskualde-mailako lurralde-antolaketa eta 1.500 eta 3.000 biztanle baino gutxiagoko udalen Idazkaritza eta Esku Hartzea antolatzea. Legea onartu eta urte bete pasa baino lehen eskualdeak eratzen hasi beharko lirakeke.

Idazkariak funtzionario izatera pasako lirakeke eta lehiaketa publiko bidez beteko lirakeke etorkizunean postuak. 1.500 biztanletik gorako udalek idazkaria izanen lukete. Eta 3.000 herritarretatik gorakoek kontu-hartzailea. Biztanle kopuru horietatik beherako herrietan eskualdeak erabakiko du.

Nafarroako Gobernutik argitu dutenez, "eskualdeetan integratzen diren egungo toki-erakundeetako langile, funtzionario eta kontratatatu administratibo guztiak eskualdeek subrogatuko

lituzkete, integrazioaren ulean indarrean dauden kontratu-baldintzetan".

Finantzazioa

Erreformatok toki-finantzaketarako eredu berri bat zehazten du ere. Toki Ogasunen Funtza Nafarroako Ogasun Publikoaren zerga-sarreraren urteko ehuneko finko baten arabera ezarriko da. Zehaztu gabe dago ehunekoa, baina ezingo da % 10 baino txikiagoa izan. Kopuru zehatza 2018ko abendua baino lehen onartu beharko luke. Hala, banaketa-egitura bakar bat egonen da: zati bat gobernuak diseinatzen dituen plan gidariei lotutako obrak finantzatzeko; beste bat zerbitzu jakin batzuetarako moduluetan banatua, "non lurralde-desberdintasunak eta beste alde batzuk izango baitira kontuan" eta nahieran zehazteko kopuru bat.

Beste finantzaketa-ildo batzuk lirakeke: montepioak, hiriburutza-agiria, kargudun publikoen ordainsaria eta toki-erakunde finantzaketa. Finantzaketa berri horretan, nahitaezko baldintza izanen da katastro-txostenak eguneratuta gotea.



ASTEKOA

RAF ATXURI

Handia

Handia zinez, Migel Joakin Eleizegi Altzoko gizasemea, 2,24 m. luze eta 2,42m. besotik besora zabal, naturaren bitxikeria izugarri hura. Handia, halaber, azken bi hilabeteotan zehar zinema aretoetan ikus eta gozagai izan dugun zeluloidezko sorkaria, Jon Garañok eta Aitor Arregik sinatu dutena. Dagoneko euskaraz filmaturiko pelikulen artean zinemetara ikusle gehien ekarri duen lana da. *Aupa Etxebeste*, *Loreak* edota *Amamak*, besteak beste, langa goi-goian paratua zeukaten kalitate zein ikusle datuen aldetik, eta beraz, albiste ona euskal kulturarendako mugarri berri hau.

Handiaren proposamenak giza portaera oinarritzkoen eremura garamatza: itxaropena, biziraupen nahia, beharra, beldurra,

ambizioa... Sentimenduen mintzaira unibertsalean idatzia dago istorio hau, gutarkerian erortzeko tentaldiak saihestuz; munduko zernahi bazterretan, hortaz, ikusleak filmaren mamia eta xedea osoki bereganatzeko ez du zailtasun handirik izanen.

Filmean nagusi den agertoki eta inguruak (oker ez banago Satrustegiko mendilerroa ere ikusgai da une batzuetan) hemengo publikoari ematen dio gainbalio bat, eta eszena

labur batzuetan euskal XIX. mendeko bizimoduaren zertzelada eder, aberats eta zehatzak eskaintzen dizkigu: apustuak, erlijioa bizitzeko modua, janzkera, gerra egiteko "gonbita", Ameriketara emigratzeko aukera...

Edertasuna eta zorakortasuna darizkio filmari hainbat eta hainbat eszenatan; Isabel II.a agertzen denekoa edo Parisko kafetegikoa, esaterako, antologikoak dira.

Esan bezala, txukunetik eta duinetik gora ondua den ekoizpena dugu *Handia*, behin eta birritan ere ikusteko modukoa. Esan gabe doa argazki-zuzendari, musikagile, atrezolari eta aktoreen jarduna ere aparta gertatzen dela. Bejondeiola *Handiari*.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

65 urte baino gehiago dituzu eta erori egin zara noizbait? Agian, artikulua hau irakurri beharrean zaude

SASOIA JUBILATUEN ELKARTEA

65 urte baino gehiago dituzten pertsona nagusien %30a urtero erortzen da, eta portzentajeak %50era egiten du gora 80 urtetik gorakoetan. Horien guztien artean %30ak ondorio nabarmenak izaten ditu, besteak beste, autonomia galera. Baina erortzeko saihestu eta prebenitu daitezke. Nola?

Lehenengoz erortzen zarenean edo sarritan erortzen bazara, Geriatrian espezialista den mediku bati aholkua eskatu beharko zenioke. Berak erortze horien zergatiak azterketa sakon bat egingo du. Zergatiak izan daitezke: botiken zeharkako

kalteak, tratamendu kronikoen ondorioak, erorketa baten moduan azaleratzen den gaixotasun berri bat, muskulu-masa galtzea, tentsio arterial baxuegia izatea, edo, diabetesa daukaten pertsonengan, azukre gutxiegi izatea. Zenbait kasutan erorketa bat arazo kognitibo baten iragarpen bat izango da. Horrela bada eta goiz atzematen bada, garapena motelduko duen tratamendu bat jartzeko aukera egongo da.

Eta erortzeko arrastoak utzi badizkizu? Eta erori baino lehen egiten zenituen jarduerak guztiak egiteko gai ez bazara orain? Garrantzitsuena lehenbailehen ekitea da. Kasu

hauek zaintzeko eta galdutako autonomia berreskuratzeko Osatze Funtzionalerako Unitate bakarra dago Nafarroan. Hau 2017ko urrian jarri da martxan Josefina Arregui Kliniketan, non gaitasun anitzak lantzeko jarduerak fisikoa egiten den (erorketak murrizten dituela zientifikoki probaturik dagoen jarduerak). Fisioterapeuta batek eta Terapeuta Okupazional batek zuzentzen dute, eta Geriatrian espezialista batek erorketen arrazoiak balorazio bat egiten du, tratamenduak egokitzen ditu eta, ahal den heinean, berriro ez erortzeko argibideak ematen ditu.

OBJEKTIBOTIK

Pilotu eta kopilotu bikainak Sakanan

Nafarroako Automobilismo Galan, Rallyetan Garikoitz Goñik IV. Klaseko piloturik onenaren saria jaso zuen eta Iñaki Arivek 3. kopilotu onenarena. Lur Gaineko Rallyan Aitor Fernandezek eta Iker Askargortak hirugarren saria jaso zuten eta mendian, monoplazetan Iker Palacios 3.a izan zen, Formula Librean Iban Lopez 2.a eta turismoetan Mikel Mendinueta 3.a.



AVM

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:
GK, Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:
Gixane Andueza Golkoetxea
admin@guaixe.eus

Kolaboratzaileak:
Erkuden Ruiz Barroso
Iñali Berastegi

Zuzentzailea:
Maria Luisa Zelaia

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

eta Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107
618 882 675
661 523 245

Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa

kirolak@guaixe.eus

Maketatzailea:

Lune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

Maria Saez de Albeniz Bregaña
publizitatea@guaixe.eus

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Kamioiak Etzegaraten. WWW.GOERRIKO.HITZA.EUS

Urte berriarekin kamioiendako bidesaria Etzegaraten

Arkuak jarri dituzte eta Via-T gailuaren bidez 3,5 tona baino gehiagoko kamioiek pagatu beharko dute

SAKANA

Gipuzkoa zeharkatzen duen A-1 autobioak trafiko handia hartzen du, tartean nazioarteko ibilbidea egiten duten kamioi astunak. Autobio horretatik kamioien trafikoaren zati bat AP-1 eta AP-8 autobideetara bideratzea eta kamioi astunek A-1 autobioaren mantenuan laguntzea, horixe izan da Gipuzkoako Foru Aldundiaren aspaldiko nahia. Europako 2011/76 zuzentarauaren arabera kontinentean zeharkatzen duen ardatzean dago A-1 autobidea eta haren mantentzea bidesarien bidez lortutakoarekin egin behar da.

Aipatu autobian 2010ean bidesaria jartzeko aukera aipatu zen lehenengoz. Eta, azkenik, ilbeltzaren leian errealitatea izanen da. AT sistema indarrean

jarriko du Gipuzkoako Foru Aldundiak urtea hastearrekin batera. Horretarako, Etzegaraten, Andoainen (Leitzarango Autobioak lotunea) eta Irunen arkuak jarri dituzte. Sistema adimendun bateko ibilgailuak arkutik pasatzen direnean, eta gelditu beharrik edo abiadura jaitsi beharrik izan gabe, salgaien garraiorako 3,5 tonatik gorako ibilgailuak detektatzen eta sailkatu, eta bidesaria kobratzen die VIA-T gailuaren bidez edo matrikula irakurrita. Halako gailurik ez duenak ibilgailua eta ordaintzeko era erregistratu beharko ditu.

Espainiako garraiolarien patronalak desadostasuna azaltzeko grebara deitu ditu kamioilariak, ilbeltzaren 2tik 5era, Errege Egunaren bezpera.

Tartea	Km	Kamioi handiak*	Kamioi txikiak*
Etzegarate-Idiazabal	7,45	4,95	4
Andoain	2,2	0,85	0,7
Andoain-Astigarraga	10,39	4,15	3,4
Gipuzkoa zeharkatzea		9,95	8,1

*Kamioi handiak 12 tonatik gorakoak dira, txikiak, berriz, 3,5 eta 12 tona artekoak.

Zerbitzu integrazioa gizarteratzea laguntzeko

Europako Batzordearen EaSI (Employment and Social Innovation) programaren deialdian aukeratutako zerbitzu berria Altsasun, Olatzagutian eta Ziordian ezartzen ari dira Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak eta Nafar Lansare elkarrekin

BURUNDA

“Zerbitzu experimental da. Europar Batasuneko Gizarte Berrikuntzako programaren parte da”. Hala laburtu zigun Nafarroako Gizarte Eskubideetarako lehendakari-orde Migel Laparrak ERSISI proiektua pasa den astean Lakuntzara etorri zenean. ERSISI ingelesezko laburdura da eta zera esan nahi du: Gizarteratzeko eskubidea indartzea, zerbitzuen integrazioaren bitartez.

Nafarroako Gobernuaren gizarteratze-zerbitzu berri horren helburua horrela azaldu zigun Laparrak: “gizarte eta lan arazoak aurre egiteko tresna eta metodo berriak sortzea da ideia. Azken xedea da Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen eta Nafar Lansareren arteko hizkuntza eta metodologia komuna sortzea da. Horregatik, orain Nafar Lansareko eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako langile bana elkarlanean ari dira”. Enplegu arazoaz aparte gizarte arloko beste arazo bat duten sektoreekin lan egiten dute, argitu zigun Laparrak.

Kontseilariak azaldu zuenez, “lan pertsonalatuagoa izanen da; erabiltzaile bakoitzari denbora gehiago eskainiko zaio. Hortik aurrera, baliabideak kasu bakoitzari pertsonalki egokituiko litzaizkioke. Beti ere, profesionalen irizpideen eta pertsonen lehentasunen arabera kasu bakoitzarendako onena izan daitekeena”. Gaineratu zuenez, “oraintxe gauzatze eta txkeatze fasean gaude”. Egingako lanaren ondorioak 2019an jasoko dira



Altsasuko enplegu bulegoa. ARTXIBOA

ZERBITZU BERRIA, HASIERAN, BURUNDA MENDEBALDEAN EZARRI DUTE ETA GERO NAFARROAN

eta, egokiak badira, proiektua Nafarroa guztira zabaltzea litzaiteke hurrengo urratsa.

Zerbitzu berriaz

Foru administrazioaren egitasmoa 2016ko irailean hasi zen eta 2019ko irailean despedituko da eta bost fase ditu. Lehenik, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak eta Nafar Lansare integratzea. Ondoren Gizarteratzeko Bermatutako Errentaren ezarpena etorriko da. Segituan enplegu politikak diseinatuko dira. Egingakoaren ebaluazioak segituko

dio eta, azkenik, herrialde guztiko eskualde guztietara zabal-kundea iritsiko litzateke. Proiektuak 1.852.284,11 euroko aurrekontua du eta Europako Funtsak % 75 finantzatu du.

Nafarroako Gobernuak ERSISI zerbitzu berria bi tokitan lantzen ari da gaur egun: Tuterako eta Altsasu, Olatzagutiako eta Ziordiko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean. Zerbitzu berria behin bukatuta, gizarte egoera ahulenean eta langabezia leudekeen 500 pertsona gizarteratzen lagunduko luke, 400 erriberar eta 100 burundar. Baina, horrekin batera, zerbitzu berriarekin lortu nahi da Errenta Bermatuaren erreformak identifikatzea eta testatzea eta toki-mailan enplegu politika aktiboak planifikatzeko sistema berria garatzea eta ezartzea, eragile publiko eta pribatuaren arteko aliantzen bitartez.



EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com



Acrylcolor
SISTEMA BERRIA
KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



Aurreko urteetako Agiriko indusketan aritutako uhartear boluntarioak lanean. ARTXIBOA

Agiriko indusketarako diru-laguntza udalari

Aralarko magalean, 900 metroko altueran dagoen despopulatuko eliza egonkortzeko eman du Nafarroako Gobernuak diru-laguntza. Udan lanean izan dira. Indusketak 2012an hasi ziren Agiri despopulatuko elizan

UHARTE ARAKIL

Hogei urteko etenaren ondoren, Kultura, Kirola eta Gazteria Departamentuak Arkeologia eta Paleontologia Ondarean eskuhartzeak egiteko laguntzak banatu berri ditu. 16 hartzaileen artean UharTE Arakilgo Udala dago. 1.800 euro jaso ditu Agiri despopulatuko elizan arkeologia-indusketa egiteko.

2012an hasi ziren elizan indusketa egiten jubilatatu uhartearrak Zizur Nagusiko institutuan historia irakasle eta Ezpilleta elkartearen kide den Pedro Arrese-zen zuzendaritzapean. Aurreneko bi udatan lan handiak egin zituzten, eta erritmoa hurrengoetan jaitsi egin da. Aurtengo udan Maria Flores Altsasu institutuko irakaslearen esanetara bueltatu dira elizara, hura zigitatu eta sendotzeko.

Eliza eta herria

Madotz eta Aralarko santutegia lotzen dituen bidearen bazterrean dago Agiri (Agiregi) despopula-

tua, 900 metroko altueran. Eliza 13 metro luze eta 6 metro zabal ditu. Pareta zabalak dira gelditzen dena. Iparraldeko pareta da finkatzen lan egin dute, barrura "puztuta" baitago. Elizak atea hegoalderantz du, ibarreko elizen moduan (Lakuntza salbu). Egindako lanek erliebedun harriak (ateko kapitela?) eta alaka zuzen eta borobilduko harriak agerian utzi zituzten. Elizaren

hegoaldeko hormaren luzeran harrizko banku bat izan daitekeena ere agerrarazi zuten. Elizatea hilerria izan zenaren gainean eraiki zuten, antza. Elizaren, eta herriko etxeetako teitua begetala zen, "ziurrenik zekalez egina". Agiriko herri despopulatu bera 13 etzez osatutako dago. Arresek haietako bat ikertu zuen.



Agiriko elizan opatutako harri landuak. ARTXIBOA

Asteartean festa izanen da Ihabarren, patroia

Ihabardarrek Doneztebe patroia ospatuko dute asteartean. 12:00etan mezarekin hasiko da egitaraua. 13:30ak aldera haurrendako bazkaria izanen da. Ondoren haiendako tailerra izanen da. Bitartean, helduak 14:30ean eseriko dira mahaian, bazkaltzera. Ondoren, musikak alaitutako arratsaldea izanen dute.

Sakanako Garapen Agentziak egutegia argitaratu du

Sakanako Garapen Agentziak (SGA) ibarreko 2018ko egutegia argitaratu du estreinakoz. Sakanako paisaia, arkitektura, ohitura, gastronomia edo ospakizunen isla diren argazkiek ilustratzen dute egutegia. Hura lortu nahi duenak Sakanako Dendari, Ostalari eta Zerbitzuen elkarteko dendetan dohainik eskuratzeko aukera izanen du.



Egutegiaren azala. UTZITAKOA

Bosgarren urtez Bakaikuko egutegia salgai

Gaur jarriko da 5 eurotan salgai Estankoan eta Kotxko tabernan. Herriko ospakizun, argazki zaharrrak eta paisaiak ditu. Bakarren batek egutegiari ekarpenak egin, iritzia eman edo argazkiak eman nahi baditu bi bide ditu: bakaiku.egutegia@gmail.com e-postara idatzi edo udaletxean mezua uztea. Hurrengo egutegirako argazkiak jasotzeko epea 2018ko azaro akaberan despedituko da.



Jende ugari elkartu zen mustutzean.

Dokumental ederra Aitziber elkartearen urteurrenekoa

"Aitziber Urdiaingo gaztedia" dokumentalaren kopiak salgai daude

URDIAN

Aitziber Urdiaingo gaztedia dokumentalaren mustutzeak urdindar ugari elkartu zituen elizan larunbatean. Aldare aurrean jarritako pantaila handian ikusi ahal izan zuten askok eta askok euren aldamenak eta lagunak Aitziber elkartearen nondik norakoak azaltzen. Gainera, dokumentalaren kopiak erosteko aukera izan zuten. Ikus-entzunezko lana Aitziber elkartearen 50. urteurrenaren kontura sortu dute bertako bazkideek.

Dokumentazio fasean bildutako materialarekin erakusketak jarri dute elkartearen ganbaran, ilbeltzaren 6ra arte ikusgai dago. Erakusketa dagoen bitartean elkartearen publiko guztiari irekita egonen da abenduaren 24an eta 31an, 12:00etatik 14:00etara, eta abenduaren 23an, 30ean eta ilbeltzaren 6an, Errege egunean, 18:00etatik 21:00etara.

Basora sartzeko txartela beharko da

Otsailetik aurrera autoan edo ibilgailuan agerian izan beharko da. Indarrean sartuko den basoko pistak eta bideak erabiltzeko arautzen duen ordenantzaren ondorioa da. Ibilgailuek eraman dezaketen pisu muga arautzen du ere

ETXARRI ARANATZ

Etxarri Aranzko Udalak baso plana berritzeko parte hartze prozesua martxoaren 4an abiatu zuen. Handik etorri zen basoko pistak eta bideak erabiltzea arautzen duen ordenantza onartzea, Nafarroako Aldizkari Ofizialean ostiralean argitaratu zena eta otsailetik aurrera indarrean izanen dena. Eneka Maiz Ulaiar alkateak azaldu duenez, “herri-basoko pistak eta bide publikoak gero eta gehiago erabiltzen direnez, beharrezkoztat jo da haien erabilera arautzea, hiru helburu kontuan hartuta: herriko natura-ondareko balioak babestea, erabiltzaileek —etxarriarrek bereziki— basoa zein bideak modu egokian erabil ditzaten lortzea eta horiek erabiltzeko moduan mantentzea”.

Ordenantzak, hasteko bi metro zabal edo gehiago dituzten mendi pistak eta zabalera hori baino estuagoa duten bide meharrak bereizten ditu. Azken horien artean “Haritz monumentalak” eta “Trikuharrien ibilbidea” bide homologatuak daudela nabarmendu du. Guztien kontserbazioaz udala arduratuko da.

Debekua

Basoko pistetan eta bideetan, eta haietatik kanpo, debekatuta dago ibilgailu motordunak baimenik gabe ibiltzea, ez badira nekazaritzarekin, abeltzaintzarekin, basozaintzarekin, larrialdiekin edo salbamenduarekin edo udalak baimendutako bestelako jarduerekin zerikusia duten ibilgailuak.

Baimendutako ibilgailuek bide bazterretan eta ohiko puntuetan aparkatu ahal izango dute, betiere modu ordenatuan egiten badute, eta beste ibilgailu batzuen joan-etorriak oztopatu edo arriskuan jartzen ez badituzte. Baimendu gabeko ibilgailuek hartarako egokitutako aparkale-



Etxarriarrek toponimia ibilaldi batean. ARTXIBOA

2018AN UDALAK ETXERA BIDALIKO DITU TXARTELAK, BAINA URTERO BERRITU BEHAR DA

kuetan aparkatu beharko dute. Gaur egun, igerilekuen ondoan dagoen aparkalekuan. Salbuespena San Adrian erromeriaren aurreko eta ondorengo egunak dira.

Udalak dagokion seinalizazioa jarriko du basoan. Otsailetik aurrera basoan sartzeko udal txarearen baimena beharko da eta hori honakoek eska dezakete: Etxarri erroldatuta daudenak, herrian erregistratutako ibilgailuetarako edo herrian etxebizitza propio dutenen edo maizter daudenen ibilgailuetarako. Eskaera egiten dutenek euren ibilgailuaren matrikula duen txartel bat jasoko dute eta autoan agerian utzi beharko dute. 2018koa ordenantzaren lehen urtea denez, udalak erregistratutako autoen jabeek txartela bidaliko die. Gainontzekoek udaletxetik pasa beharko luke-

te eske. Baina 2019tik aurrera urtero udaletxean berritu beharko da, dagokion zerga “txikia” pagatuz.

Bestelakoak

Basoko gaiak eta eraikuntzako materialak pista eta bideetatik arrastaka eramatea debekatuta dago. Pistetan ezinen dira ibili 40 tona gordineko karga gainditzin (ibilgailua gehi karga guztira) duten ibilgailuak ibili. Eta bide meharretan 30 tonara jaisten da muga. Egurra ateratzerakoan, lurra guztiz lehor badago, 25 tonakoa da muga, 20koa bustita badago. Euri egunetan, lurra guztiz lehor ez dagoenean edo lohia dagoenean ibilgailuen eta kargaren zama ezin izanen du 10 tonatik gorakoa izan. Ahuntzetxeko bisitarien ibilgailuak sartzeko aukera izanen dute, baldin eta erreserba egina eta baimena badute.

Internet

Udalak jakinarazi duenez, www.etxarriaranatz.eus web orria eduki gaitasun handiagoa izateko berritzen ari da. Bestetik, Facebook-en ere bi profil ditu: udalarena eta kulturakoa.



Zerbitzuak ikasleekin azaroaren 25ean antolatutako ekitaldia. ARTXIBOA

Emakumeen Bilgunearen urteurren festa

Hilaren 29an, larunbatean, 18:00etan ospatuko da kultur gunean. Gonbidapenak eskuragai daude

ALTSASU

Altsasuko Udalaren Emakume eta Berdintasun Zerbitzuak 25 urte bete ditu eta haren batzordeak proposatuta duela 25 urte hasitako bidea programa prestatu zuten. Horren barruan hitzaldi bana eman zuten Arantza Urretabizkaia Bejaranok eta Saioa Iraola Urkiolak. Egitaraua borobiltzeko 25. urteurren festa ospatuko da hileko azken ostiralean.

Berdintasun teknikari Idoia Goikoetxea Gomezek azaldu digunez, “25 urteko epeko garrantzitsuena ez da Altsasuko Udalak egindako lana, baizik eta emakumeek lortutako aurrerapenak. Eta, gure kasuan, Altsasuko emakumeenak”. Horregatik, urteurren ospakizunean “emakumeen ekarpenak, iritziak, balorazioak eta abar ikustarazi nahi ditugu”. Hori guztia emakume altsasuar talde baten part-


te hartzearen bidez islatuko da zerbitzuaren urteurren ospakizunean.

Baina gogoratzearekin batera “etorkizuna erakutsi” nahi dutela jakinarazi digu Goikoetxeak: “ideien eta proiektuen etorkizuna, baita neska eta emakumeena ere”. Horiek irudikatzen ospakizunean dantza, musika eta bertsoak lantzen dituzten nesken taldeak parte hartuko dute. Ekitaldiak 25. urteurreneko bideoa aurkezteko balioko du. Hartan mende laurden horretan “berdintasunaren alde lan egin duten erakundeek eta emakumeek” parte hartzen dute.

EMAKUMEEK LORTUTAKOA ETA ETORKIZUNEN ERONKAK ISLATUKO DIRA OSPAKIZUNEAN

Altsasuko Udalak frontoia kudeatzeko deia egin du

Atabo elkarte publikoak jakinarazi du Frontoi taberna hartzeko deialdia egina dagoela. Ardura hartzen duenak tabernaz aparte, Burunda pilotalekuaren mantenua eta garbiketa egin beharko ditu. Proposamenak Altsasuko udaletxean aurkeztu behar dira ilbeltzaren 3rako. Urte bateko kontratua hiru urtez luzatu daiteke.





Altsasuko Udalaren bilkura bat. ARTXIBOA

Udalak zergak eguneratuko ditu

Heldu den urtean igoera % 1,5koa izanen dela onartu zuen udalak. Bestetik, Berdintasun, Gazteria eta Kirol sailetarako administrazio-laguntzaile bat kontratatzeko udal deialdia argitaratu zuen Nafarroako Aldizkari Ofizialak astelehenean

ALTSASU

Altsasuko Udalak 2014az geroztik ez ditu zergak ukitu, baina "KPI positiboa da gaur egun eta errealitatearekin bat egiteko" udalak zergak % 1,5 igoko ditu heldu den urterako. Tasa eta prezio publikoen igoeran salbuespena zinemako sarrerak izanen dira, aurtengo berak mantentzen baitira. Hala onartu zuen Altsasuko Udalak astelehenean egindako bilkuran.

Bestalde, urte berriarekin batera katastro-balioaren eguneratzea indarrean sartuko da, 2002tik berritu gabe baitzegoen. Javier Ollo Martinez alkateak azaldu zuenez, "orokorrean erai-kinen balioa handitu egiten da eta eraiki gabeko ondasunen balioa jaitsi egiten da. Baina udalak 2018an aurtengo diru kopuru bera bildu ahal izateko hiri- eta landa-lurren gaineko kontribuzioak jaitsi egin ditu. Aurrerantzean ondasun guztiei % 0,3176 tasa ezarriko die Altsasuko Udalak.

Udal bilkura berean 2018ko zerga-ordenantzak eta Aita Barandiaran adinduen egoitzako kontzertatu gabeko plazen prezioak onartu dira. Azken horiek, udalaren gainontzeko zergen modura, % 1,5 igoko da. Azkenik, Udal Musika eta Dantza Eskolarako pianoa erosteko 5.000 euro bideratzea erabaki zuen udalak.

Adinduen egoitza

Altsasuko Udalarrena da Aita Barandiaran adinduen egoitza. Azaro akaberan langileek eta LAB sindikatuak "egoera prekariora eta neurrigabeko lan karga" salatu eta udalari lan hitzarmena negoziatzeko eskatu zioten. Javier Ollo Martinez alkateak jakinarazi digunez, egoitzako Errektoretza Batzordean ari dira langileen eskaerak aztertzen. Alkateak azaldu duenez, "azken hilabeteetan lanaren berrantolaketa egin da, langileen lanak arintzeko". Ollok esan duenez, "pertsona gehiago kon-

tratatzeko edo asteburuan laguntza ematen duten langileen lanorduak handitzeko lege- eta ekonomia-txostenak aztertu behar ditugu, legalki hori egin dezakegun jakiteko".

Egoitzako langileek salatu zuten, "gaur egun dugun ingresatu kopurua eta haien profilar ezinezko egiten du dugun langile kopuruarekin kalitatezko arreta bat ematea". Gaineratu zuten, "egoera are larriagoa da asteburuan, langile kopurua murriztagoa denean eta arreta behar duten pertsonak berdinak direnean".

Bi aldarrikapen egin dituzte: astebururako langile gehiago kontratatzea eta udala lan hitzarmen berria negoziatzera eser dadila.

Aldaketa

Azaroaren 27az geroztik Jose Luis Moran Goazen Altsasuko zinegotzia da. Zerrendan hiru-garrena zenak Pedro Jose Arregi Mugikari hartu zion lekukoa.



Falangeren izenean Zubi-ondo elkartearen egindako pintaketa.

Falangeren urteko bigarren pintaketa egin dituzte

Iraila hasieran Otsaportilloko lezoko eskulturan egin zituzten eta herenegun Altsasuko Zubi-ondo elkartearen

ALTSASU

Ezezagunek Falangeren aldeko pintaketak egin zituzten Zubi-ondo elkartearen herenegun gauean. Honakoak idatzi dituzte elkartearen fatxadan: *Gora Falange, akabatuko zaituztegu eta Falange ETA berria*. Erakundearen bi irudi (uztarria eta geziak) eta nazien svastika bat margotu dituzte ere. Falange Vasconavarra izena erabiltzen duen Twittergo @Tussuria kontuan abenduaren 11ko txio batean mehatxu pintaketak agertutako elkartearen argazkia eta helbidea agertu ziren eta "Dostoievskiren demonioen habia" gisa definitu zuten.

Aurrekariak

1936ko estatu kolpearen ondoren eraildakoen omenez Otsaportilloko lezean jarritako Jose Ramon Andaren eskulturan pintaketa agertu zen irailaren 2ko gauean: *gehiagorendako tokia dago* idatzi zuten eta Falangeren bi ikur margotu zituzten. Eskultura behin baino gehiagotan erasotu dute. Esaterako 2010eko azaroaren 3ko gauean Espainiako banderak eta mehatxuzko hainbat mezu idatzi zituzten: *Gora Espainia, sasikume putokak; Zuen erruz negar egin zuten ama guztien partez eta Dagoeneko ezin da bakerik egon, gerra galdu zenutelako, lehertu behar zaituztet*.

Altsasuko auzia eragin zuen liskarra hasi zen tabernako paretan pintaketa egin zuen Falangek 2016ko azaroaren 7an. Or-

duko hartan honakoa idatzi zuten: *Pikoletoekin aise, falangerekin kasu*. Falangeren ikurra ere margotu zuten.

2009ko agorrilaren 20an, Arbizun, lau zinegotziren izenak eta haien kontrako heriotza mehatxuak (*orain zelatan, bihar hilko zaituztegu*) agertu ziren idatzita Arbizuko udaletxeko fatxadan. Aldamenean Falangeren logotipoa eta *Otsaportillo 1936. Gora Barandalla!* idazkia zeuden. Gerora Falange y Tradición taldeak bere gain hartu zituen Euskal Herrian egindako 25 eraso, baina zerrendatu gabe. Urte hartako lastailaren 23an atxilotu zituzten taldeko bost kideak. Haietako hiru mehatxu delituagatik zigortu zituzten. Aurrekaririk ez zuten bat bera ere ez zen espetxera joan.

Altsasuko EHBilduko pintadak salatu ditu. Koalizioak "eraso faxista" ez dela "gertaera bakar-tia" izan nabarmendu du, Mendillorriko eta Gasteizko kasuak gogorarazi ondoren. EHBildutik azaldu dutenez, "edozein eraso faxistaren aurrean lehentasuna erantzuna da, gizarte osoarena. Beraien mehatxuen gainetik, berdintasunaren aberastasuna eta desberdinari errespetua izan behar dira oinarriak, haietatik aldaketa indartzen eta gizartea eraikitzen jarrai dezagun". Koalizioak elkarteari elkartasuna azaltzearekin batera, "gure herriaren alde orain arteko konpromisoarekin lanean jarraitzea" animatu du. Eta laguntza emateko prest azaldu da.



@DONOSTIAKULTURA

Altsasuarren txistorra saritua

Donostian atzo jokatu zen 22. Euskal Herriko Txistorra Txapelketa Patxi Arangiz Oiarbideren eta Beñat Goikoetxea Oiarbide altsasuarren Oiarbide Harategi zegamarak irabazi zuen. Bestalde, herenegun, Ordizian 20. Euskal Herriko Txistorra Txapelketa jokatu zen eta Burlatako Larrageta harategiak irabazi zuen, Olaztiko Aldasoro harategia 5. izan zen.



NAFARROAKO GOBERNUA

Aldasoro, langile autonomoa

Nafarroako Gobernuak lan autonomoa nabarmentzeko eguna ospatu zuen ostiralean. Eta, horren barruan, autonomo gisa egindako lanagatik 16 pertsona saritu zituen. Estreinako aldia da Nafarroako Gobernuak autonomoei halako aitortza egiten diena. Juan Jose Aldasoro Sarasua altsasuarrak harategien sailko saria jaso zuen.



Saritutakoak euren urdaiazpikoekin. . UTZITAKOA

Urdaiazpikoak, eguberriak ongi hasteko

Sakanako Dendari, Ostalari eta Zerbitzuen elkarteak Azarokote kanpainako sariak banatu zituen. Ibarrean erosketak egitera animatu nahi du elkarteak kanpaina horrekin, herriei bizitza eman eta ibarreko ekonomia laguntzen duelako

SAKANA

Sakanako Dendari, Ostalari eta Zerbitzuen elkarteak ibarrean bertan kontsumitzera bulkatzen duen Azarokotea kanpaina despiditu zuen ostiralean. Elkarte-ko establezimenduetan erosketa egin zutenek 46 urdaiazpikoren zozketan sartu ziren.

Aurretik, Altsasuko Dendarien Elkarteak (ADE) eta Alde Zaharreko Tabernen Xurrut elkarteak antolatuta, elkartasunezko txokolate-jana izan zen. Txokolate beroa euro erdiaren truke banatu zuten eta jasotako guztia Mila Kolore elkartearendako izan zen. Ondoren, Mila Koloreko kideek eguberri argiak piztu zituzten Foru plazako

intxaurren ondoren. Hirugarren urtea da ADEk udalarekin batera ekimen hori egiten duena.

Hori ez da ADEk eguberrietarako aurreikusita duen gauza bakarra. Hilaren 29an, ostegunarekin Txiki festa antolatu du. Haurrek kart-ekin eta salto zirkuarekin gozatzeko aukera izanen dute euro erdiaren truke. 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara, kultur guneko zabalgunean, eta eguraldiak laguntzen ez badu Burunda frontoian.

Sarituak

Milagros Goñi, Pascual Oteiza, Marisol, Teresa, Eusebio Razkin, M^a Angeles Vicario, Esther Ur-

kijo, Milena Budinova, Mercedes, Ana Lopez, Mari Gonzalez, Martin (Txiki taberna), Erkuden Plaza, Rosario Igoa, Maria Barroso, Jone Muñoa, Javier Leon, Irati Zabala, Ana Bea, Nicolas, Javier Mendia, Gorka Ortiz, Seila Castillo, Nuria Alberdi, M^a Jose Ganboa, Juan Jesus Etxeberría, Ventura Mundiñano, Nekane Ortigosa, Juan Lete, Manuela Nuncio, Isabel Razkin, Cristina, Javier Grados, M^a Sol Mozo, Manoli Terrados, Ana M^a Sanz, M^a Sol Lanz, Josu Dorronoro, Maria Jesus Goikoetxea, Edurne Aldaz, Josune Zabala, Juana Jaka, Idoia Bikuña, Elena Garisoain, Elena Rodriguez eta Irantzu Erdozia.

Amaya
Okindegi-gozotegia

Lantegia: Teileria Aldapa S/N
Altsasu
948 562 205

BM-supermerkatua

Urte berri on!

Araia (Araba)
945 314 572

Olazti
948 468 755

Etxarri-Aranatz
948 461 660

San Juan kalea, 50
Altsasu
670 389 017

Otadiako Kristo
Deuna Plaza, 19
Altsasu
948 562 185

Zumalakarregi Plaza
Altsasu
T. 948 468 026

Urteko azkena presoan aldeko mobilizazio asteburua izanen da

Sakanako Sarek antolatu ditu euskal preso eta iheslarien aldeko mobilizazio horiek

SAKANA

Jakina da Sarek deituta ilbeltzaren 13 Bilbon manifestazioa egingen dela, Elkarrekin aurrera egiteko prest gaude. Giza eskubideak, konponbidea, bakea lelopean. Sakanako Saretik ilbeltzeko hitzorduaren “garrantzia” azpimarratu dute eta hari begira ibarreko herrietan presoan eta iheslarien eskubideen aldeko mobilizazioak antolatu ditu abenduaren 29rako, 30erako eta 31rako.

Sakanako Saretik azaldu dutenez, ibarrean “prest gaudela adierazi nahi dugu. Gatazkaren konponbidean urratsak emateko prest gaudela ozen esan nahi dugu. Eta horretarako euskal presoei aplikatzen zaien salbuespenezko neurriekin lehenbailen bukatu behar denaren ideia konpartitu nahi dugu sakanarrekin. Horrekin bukatze-

ko giltza herri aktibazioa eta herri mobilizazioa direla siniztu”. Sakanako saretik urteko azken asteburuan antolatu diren ekimenetan parte hartzeko deia egin dute. Aldi berean, ilbeltzaren 13an Bilboko manifestazioa joateko deia egin dute. Autobusez joateko txartelak herri guztietan ohiko tokietan esku-ragarri daude.

Jubilatuak presoan alde

Sasoia, Nafarroako jubilatuen elkarteak deituta Etxarri Aranazko azokan kontzentrazioa egin zuten astelehenean. Gaixotasun larriak dituzten eta preso daudenak etxeratze eskatu zuten. Aurrekoetan bezala sakanaketa politika bukatu eta preso guztiak Euskal Herriratzeko eskatu zuten. Baita zigorra beteta dituztenak libre uzteko eskatu ere.



Sasoia elkarteko kideak Etxarri egindako kontzentrazioa. UTZITAKOIA



Iñigo Aritzako irakasleak. UTZITAKOIA

Sakanako deialdiak

Herria	Ordua	Tokia
Irurtzun	Abenduak 29, 19:00	Kontzentrazioa eta argazkia
Lakuntza	Abenduak 31, 19:00	Kontzentrazioa
Arbizu	Abenduak 29, 18:00	Prest gaude sua mantentzeko herri ekimena
E. Aranatz	Abenduak 29, 19:00	Ekimen berezia: mikro irekia, mosaikoa eta auzatea
Altsasu	Abenduak 31, 20:00	Kontzentrazioa eta auzatea

urtarrilak 14
Bi emanaldi: 17:30 eta 19:30 IGANDEA

zama
doinu arindu

Etxarri Aranazko Kultur etxean

Mikel Urdangarin
Niko Etxart
Ines Osinaga
Kutxi Romero
Petti
Alex Sardui eta Haimar Arejita
Ekiza
Irati Lasa eta lagunak

Sarrera 15€

SARRERAK ALDEZ AURRETIK:
On-line: www.etxarriaranatz.eus web gunean.
Etxarri Aranazko Xapatero eta Leku Ona tabernetan eta Etxarri Aranazko udalbatzeko kultura bulegoan (astelehenetik ostiralera 09:00-13:00)

Antolatzaileak: Etxarriko SARE eta Etxarriko Senide eta Lagunak

Laguntzaileak: **naiz: ahotsa**

IRAGARKI SAILKATUAK

HIGIEZINAK

Establezimendu publikoa saltzen da Uhartetarako. Tel 650 153 240.

Lakuntzan gela bateko apartamentua alokatzen dut, herriko etxe batean dago. Tel 679 50 54 64 Itzi.

OHARRAK

Odol-emaileak. Uhartetarako: Abenduak 17, 17:00-20:30

Enplegarritasuna hobetzeko bitartekaria eta aholkularitza zerbitzua. Sakanako Enpresarien Elkarteak langabeei eta lan

bila dabilzanendako duen aholkularitza zerbitzua da. Harremantarako, 948 468 307 telefonoa.

Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza, euskonews@euskonews.com, 943 32 22 94

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota marxan dagoen jardueraren sonatzea.

Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

GALDUTAKOAK

Patinete bat galduta Altsasun (Txikian).

Azaroaren 26an scooter bat (oxelo) Altsasun galdu zen Txioika inguruan. Edozeinek aurkituko balu 666 057 858 telefonora dei dezakezu. Eskerrik asko.

www.iragarkilaburak.com

www.pescaderiamariaeugenia.com
Gabonetarako enkarguak gurean egin

Zorionak eta urte berri on

mariaeugenia
Arrainak

Unai: 607 804 316 / Olaia: 678 564 722
El Ferial, 1 • 948 467 950 / Isidoro Melero • 948 467 725

Ikastoletan LOMCEren kontrako protestak

Ikasle eta irakasleek pilotatze proben kontra protesta egin zuten astelehenean

SAKANA

Hezkuntzako LOMCE legeak errebalidatu ekarriko ditu eta haien maila zehazteko Hezkuntza Departamenduak pilotatze probak egingen ari da. Astelehenean Sakanako ikastoletako DBHko 1. mailako ikasleei egitekoak ziren. Ikasle Abertzaleak proba horien kontra protesta egitera deitu zituen ikasleak eta kontzentrazioak egin zituzten. Ikasle Abertzaleak-ek jakinarazi duenez, Andra Mari ikastolan inork ez zuen proba egin eta Iñigo Aritz ikastolan 15ek.

Irakasleek ere protesta egin zuten. LABetik azaldu dutenez, “familia gehienek erabaki zuten beraien haurrek ez zutela probarik egingen”. Sindikatuko ikastoletako delegatuek adierazi dutenez, “LOMCE jada aplikatzen ari bada ere eta egiten ari diren probak hasiera batean planteatzen zuten pisurik ez badute ere, lege arrotz horrek bere hasierako asmo zentralista, atzerakoi, segregatzaile eta antipedagogikoari eusten dio”. Hezkuntza sistema propioa eraiki beharra nabarmendu zuten, eta irizpideak eman zituzten: “ebaluazio sistema, hobekuntza eta ikaslearen ongizatea helburu, gertukoa, adostua, integrala eta integratzailea izan behar da”.



Kudeaketa kalitate aitortza

Nafarroako 14 ikastetxe publikok kalitateari sariak jaso zituzten astelehenean. Maria Solana Hezkuntza kontseilariaren eskutik jaso zuten aitortza. Kalitatearekin konpromisoa aitortza jaso zuenetako bat Etxarri Aranazko San Donato eskola publikoa izan zen. Solanak azpimarratu zuen kalitate sare-kide direla sare publikoan ari diren ikastetxeen % 53.

Urte berriko lehen egunean Aralarko santutegian, meza

Aralarko Deun Mikel Goiaingearuaren Kofradiatik urteko aurreneko egunerako gonbidapena egin dute: "Aralarko santutegian lagun eta maitale guztiak 12:30ean izanen den urteko lehen meza nagusira" joateko gonbidapena zabaldu du; "makina bat jende biltzen da elizkizun horretan", gaztigatu dute. Meza entzun ondoren fededunek Ara-

larko aingeruaren irudia gurtzeko aukera izanen dute.

Kofradiatik beretik beste jakinarazpen bat egin dute heldu den asterako; ostegunerako hain zuzen ere. Izan ere, abenduaren 28an, biziko balitz, Inocencio Aierbe zenak 105 urte beteko lituzke. Urteetan Aralarko santutegiko kaperau izandakoaren bere etiko lagunak Uharteko Zamartzen elkartuko dira, bizi zela ospatzen zuten moduan 11:00etan meza entzun eta ondoren aingerua gurtuz.



Oinezeko Iruñeko denda zabalik

Momotxorroak, sorginak, maskarrikak, Juan Tranposoa, akerra eta txistulariak presente zirela, Nafarroa Oinezeko Iruñeko denda zabaldu zuten ostiral iluntzean. San Anton kaleko 26. zenbakian dago ikastolen festarako materiala salduko duen denda. Oinezeko Altsasun beste denda bat du, baina www.nafarroaoinez.eus web orriaren bidez ere eros daiteke.



Errege-segizioa. ARTXIBOA


Fale hotsak erregeak Sakanaz ez ahazteko eskatuz

Fale, fara edo zintzarri hotsak. Eta Iturmendiren kasuan bezala, haiek mugiarazten dituzten haurrek bihar erregeak oihuka ariko dira. Ilbeltzaren 5ean izanen da hori. Irañetan 11:30ean egingen dute, gosaldur ondoren. Lizarragan, antzeko. Eta arratsaldean Etxarri Aranatz, Iturmendin eta Altsasun. Guztia erregeak Sakanaz ez ahazteko, eta haien etorrera iragartzeko. Azken horretan gainera, faradunen erregea aukeratuko dute opilen banaketaren bidez. Sorpresa opatzen duena faradunen buru izanen da.

Ondoren ekialdetik etortzen diren aztiei harrera egingen zaie herrietan, segizio ikusgarriak osatuz..

Erregeen ordutegiak

Herria	Ordua	Tokia
Iruztzun	18:30	Eliza
U. Arakil	18:30	Zerradoatik
Lakuntza	18:30	Ibai aldetik
Arbizu	18:00	Udaletxetik
Ergoiena	18:00	Lizarragako eliza atetik
E. Aranatz	19:00	Eliza
Bakaiku	18:30	Beheko basotik
Iturmendi	19:00	Beheko basotik
Altsasu	17:30	Farejoleen errege zozketa
	19:00	L.H. Institututik
Olazti	18:00	Jubilatuetatik
Ziordia	19:00	Texeria kaletik



Olentzero eta Mari Domingi iganderako guztia prestatzen ari dira. ARTXIBOA

Olentzero igandean bisitan etorriko zaigu

SAKANA

Ikazkinak etzi basoa utzi, eta Mari Domingi lagun duela, ibarrera jaitsiko da, sakandar txiki eta handiak bisitatzen. Behar bezalako harrera prestatzen azken momenturaino ari dira lanean ibarrean barna makina bat sakandar. Lakuntzan, esaterako, 11:30ean Biltoki gazte elkarte apaintzeko gelditu dira. Gainera, Mari Domingi bera, eta Olatzagutiaren kasuan Lamiatuturrek, txikiaren gutunak jasoak dituzte hainbat herrietan. Altsasun, gainera, ikazkinak udalak erositako eszena-toki berria mustuko du igandean.

Eta makina bat herrietan Olentzero despeditu ondoren otamena edo auzatea izanen da. Herri handienetan poteo animatua izanen da, Etxarrin tabernek jatekora gonbidatuko dute.

Arratsaldeko harrera horren aurretik, goizean, txikiak kantu eskean ariko dira Sakanan barna. Eguberri kantak etxez etxe eskean kantatuko dituzte. Uharteko Arakilen eta Etxarri Aranatz, esaterako, *pazkuan amores* esaera erabiliko dute etxetako atea jotzerakoan. Kantu-eskeko erronda horietan aritzen diren hainbat haur base-rritarrez jantzita ariko dira. Guztiek saria jasotzeko poltsak izanen dituzte eskutan.

Olentzeroren ordutegiak

Herria	Ordua	Tokia
Iruztzun	18:30	Plazaolako zubia
Etxeberri	18:00	Menditik
Etxarren	18:30	Eliza
Satrustegi-Hiriberri	17:30	Elkartean txokolate-jana
	18:30	Satrustegi
	19:30	Hiriberri
Ihabar	18:30	Autobiako zubian
Irañeta	18:00	Autobus geltokian
Uharteko A.	18:00	Martigarrotik
Arruazu	19:30	Arnazko bidetik
Lakuntza	19:00	Beheko basotik
Arbizu	18:00	Plazan
Unanu	18:00	San Donato bidetik
Lizarraga	18:00	Menditik
Etxarri A.	17:00	Aldapasoron
Bakaiku	18:00	Zulanpetik
Iturmendi	19:00	Menditik
Urdiain	18:00	Portukotik
Altsasu	18:00	San Juan ermitatik
Olatzagutia	18:30	Belengo iturria
Ziordia	18:00	Menditik

Jaiotzen artearekin gozatzeko aukera bikoitza

Sakanako belenzaleen elkartearen egoitzan eta San Sebastian ermitan makina bat jaiotza daude ikusgai

OLATZAGUTIA

Sakanako belenzaleen elkarteak, atzera ere, bere sormenaren isla den erakusketa jarri du eguberrietan. Baina aurtengoa berezia da. Pilareko zubiarekin estatu-ko belenzaleen topaketa egin zen Gasteizen. Han bildutakoek Olatzagutira etorri ziren sakan-

darren lana ezagutzera eta zuten mailarekin harrিতuta bueltatu ziren. Ibarreko belenzaleek hiru tokitan jarri zuten erakusketak eta haietako bi eguberrietaraino mantendu dituzte: euren egoitzakoa eta San Sebastian ermitakoa. Aurrenekoan 12 diorama (5 metro karratuko azalera) eta

10 arketa (txikiagoak). Ermitan beste 10 diorama daude.

Aurreko urteetan sortutako jaiotzen erakusketa da. Belenzaleen egitekoa hondatuta zeuden zatiak konpontzea eta guztiak garbitzea izan da. Guztia lastaila erdialderako egin behar izan zuten. Orduan kanpoko bisitariak izan zituzten, baina orain ere: Girona, Valentzia, Oviedo edota Euskal Herria. Sakanako belenzaleen elkarteak ere beste batzuen lanak ezagutzeko aukera baliatzen du eguberrietan eta igandean Logroñon izan ziren, iparraldeko zaleen

topaketa baliatuz. Handik bueltan Lizarran gelditu ziren. Haietako bat Sevillan izan da eta beste bisitaren bat eginen dute ziurrenik. Halakoetan ikastera doazela aitortu digute. Aurten elkartekideen lanak soilik Olatzagutian daude ikusgai. Baina haiek jaiotza bat olaztiar bat dagoen Ultzamako komentu bati oparitu diote.

Jaiotzak egiten ikasi nahi dutenek izena ematea besterik ez dute. Haiek erakusteko prest daude, "ideia jende gehiago egotea litzateke". Joan den urtean Agurainen eman zuten ikastaroa.

Bisita ordutegia

Sakanako belenzaleen elkartearen egoitza eta San Sebastian ermitan (asteburuetan eta jai egunetan, edo aurretik eskatuta) ilbeltzaren 7ra arte, astelehenetik larunbatera, 18:00etatik 20:00etara eta domeketan 13:00etatik 14:00etara eta 17:30etik 20:30era



AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI Tel.: 948 56 42 75 / gutunak@guaixe.eus

OSTIRALA 22

OLATZAGUTIA Musika eskolako ikasleen eguberri kontzertua. 17:30ean, kultur etxean.

ALTSASU Mahai-jolas txapelketa. 18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

ETXARRI ARANATZ Udal Musika Eskolako ikasleen eguberri kontzertua. 19:00etan, kultur etxean.

ETXARRI ARANATZ Beilatokia toki egokian. 19:00etan, Kale Nagusiko 7. zebakiaren parean.

ALTSASU Urte akaberako kontzertua emanen dute Altsasuko Musika eta Dantza Eskolako ikasleek. 19:00etan, lortia kultur gunean.

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak. 20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske kontzentrazioa. 20:00etan, udaletxe parean.

ALTSASU *Asesinato en el Orient Express* filmaren emanaldia. 22:00etan, lortia kultur gunean.

OLATZAGUTIA Moonshine Wagon taldearen kontzertua. 23:30ean, Barandi tabernan.

LARUNBATA 23

IRURTZUN Euskaraz jolastu. Helduendako herri jolasak eta umeendako tailerra. Euskal Ekitaldiak. 11:30ean, Foru plazan.

IRURTZUN Gozogintza tailerra. 16:30ean, Pikuxar euskal txokoa.

ALTSASU Barre tailerra. 17:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

ALTSASU *Europar Batasuna. Ez zaituztegu nahi, ez zaituzte behar* hitzaldi-eztabaida antolatu du Askapenak. 18:00, Gure Etxean.

ALTSASU Mahai-jolas txapelketa. 18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

ALTSASU *Cantos con encanto* kontzertua eskainiko du Trasteando taldeak. 19:30ean, lortia kultur gunean.

IGANDEA 24

ALTSASU Andoin eta Legaire arteko joan-etorria eginen dute Altsasuko Mendigoizaleek. 08:00etan, elkartetik.

ALTSASU Apotako gainera 44 km-ko joan-etorria eginen du Barranka txirrindulari klubeko mendi-bizikleta taldeak. 08:30ean, klubeko bajeatetik.

ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa. 20:00etan, Foru plazan.

ASTELEHENA 25

ALTSASU Mural tailerra, proiektzioak eta beste astelehenetik ostiralera, doan. 17:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

ALTSASU *Felices sueños* filmaren emanaldia. 19:40ean, lortia kultur gunean.

ALTSASU *Momentos* izenburua jarri dio Chuma Arginarizek bere pintura erakusketari. *Ilbeltzaren 10etik otsailaren 2ra arte astegunetan* 18:30etik 21:00etara eta domeketan 17:30etik 21:00etara, lortia kultur gunean.

ALTSASU *Asesinato en el Orient Express* filmaren emanaldia. 19:30ean, lortia kultur gunean.

ASTEARTEA 26

ARBIZU Haur eta gazteendako jolasak. 16:30etik 19:30era, kiroldegian.

IRURTZUN *Hamaika herrialde hizkuntza bat*, Hutsun txalaparta taldea eta Xabier Unanuaren ikus-entzunezkoa. 19:30ean, kultur etxean.

ALTSASU *Izar hautsa* ikuskizuna Dantzarima konpainiaren esku. 19:30ean, lortia kultur gunean.

ASTEAZKENA 27

ARBIZU *Hartz txiki* filma. 17:00etan, udaletxean.

ETXARRI ARANATZ Eguberriak jolas parkea. 11:30etik 13:30era eta 16:30etik 19:30era, frontoian.

OSTEGUNA 28

ALTSASU *Con los brazos abiertos* filmaren emanaldia. 19:00ean, lortia kultur gunean.

ARBIZU *El primer día d'octubre* dokumentala eta Kataluniari buruzko afari-tertulia Fabia Diaz Cortesekin. 20:00etan, Aldabiden.

OSTIRALA 29

ALTSASU Kart-ak eta jumping zirkuitua dendari elkartearen

ALTSASU Pott eta... 2017. Denboraren soinuak. Juan Barriolaren Nafarroako frontoien argazki zaharren interbentzioak Patxi Aldunatek. *Abenduaren 31ra arte astegunetan* 18:30etik 21:00etara eta domeketan 17:30etik 21:00etara, lortia kultur gunean.

LAKUNTZA Gure aittun-amiñak saileko margoekin erakusketa jarri du Jokin Alegriak. Kale taberna.

txiki festan. 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.

ARBIZU Haurrendako puzgarriak. 16:30etik 18:30era, kiroldegian.

ARBIZU Presoen aldeko ekimena, 200 herritar 9 zutabetan. 18:00etan, plazan.

ETXARRI ARANATZ Beilatokia toki egokian. 19:00etan, Kale Nagusiko 7.ean.

ALTSASU Lur Usabiagak ipuin-kontalariak *Zorion festa* kontakizuna. 19:00etan, lortian.

SAKANA Hileko azken ostiraleko Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak Irurtzun, Uharte Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku eta Olaztin. 20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske kontzentrazioa. 20:00etan, udaletxe parean.

ALTSASU *Con los brazos abiertos* filma. 22:00etan, lortian.

OLATZAGUTIA Pantxo Balbuena mariatxia. 00:00etan, Barandi tabernan.

LARUNBATA 30

ARBIZU Indarkeria matxista

OLATZAGUTIA Jaiotzen erakusketa. Sakanako belenzaleen elkarteak San Sebastian ermitan eta bere egoitzan jarri ditu jaiotzak ikusgai. *Ilbeltzaren 7ra arte, astelehenetik larunbatera, 18:00etatik 20:00etara eta domeketan 13:00etatik 14:00etara eta 17:30etik 20:30era.*

URDIAIN Aitziber Urdiaingo gazteria. Aitziber elkartearen 50 urteei buruzko erakusketa. *Ilbeltzaren 6ra arte elkartearen ikusgai.*

lantzeko tailerra. 10:00etan, elkartean.

ALTSASU *Entrenamiento de la condición física en cancha en edades de formación* hitzaldia emanen du Gorka Nuñezek CBASKEK antolatuta. 11:00etan, Zelandi kiroldegian.

IRURTZUN Mus txapelketa. 15:30ean, Pikuxarren.

ALTSASU Mus txapelketa, 4 erregetara. 16:00etan, gatzetxean.

ZORION AGURRAK



José eta Jesusa Hilak 29an, 61 urte elkarrekin. ZORIONAK!! Bikain pasa zuen egunean!! Etxekoak.



Zorionak Luilly! Besarkada bat. Prest gaude hi, Boltio, Oihan eta gainontzekuek etxia ekartzeko! Eutsi goiari eta jo ta ke!

LAKUNTZA Txingukolore Txingurriye taldeak antolatuta.

17:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Garabatos taldearen kontzertua.

17:15ean, Zelandi kiroldegian.

ALTSASU Olatz Zugastik *Ur goiena, ur barrena* diskoa aurkeztuko du Iñigo Aritzako DBHko ikasleekin.

19:30ean, lortia kultur gunean.

ALTSASU Urte zahar festa afaria, musika eta photocallarekin.

Intxostiapunta gazte gunean.

IGANDEA 31

IRURTZUN Txokolate-jana eta Ergara igoera.

09:00etan, Pikuxarretik.

OLATZAGUTIA Aizkorriera igoera antolatu du Sutegi taldeak.

Plazatik.

ALTSASU Urbasara San Silvestre igoera.

12:00etan, SD Altsasu paretik.

ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira.

20:00etan, Foru plazan.

ASTELEHENA 1

ETXARRI ARANATZ Alberto Ladron idazlearekin literatur solasaldia, irekia.

19:00etan, liburutegian.

ALTSASU *Con los brazos abiertos* filmaren emanaldia.

19:30ean, lortia kultur gunean.

ASTEARTEA 2

ARBIZU Haurrendako puzgarriak.

16:30etik 18:30era, kiroldegian.

ASTEAZKENA 3

ARBIZU Maia Guineak haurrendako ipuinak kontatuko ditu.

12:30ean, liburutegian.

OSTEGUNA 4

IRURTZUN Futbola euskaraz. Gurasoak seme-alaben kontrako partida. Euskal Ekitaldiak.

12:00etan, kiroldegian.

ARBIZU *Nur eta herensugearen tenplua* filmaren emanaldia.

17:00etan, udaletxean.

ETXARRI ARANATZ *Maya erlea* filmaren emanaldia.

17:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Billar txapelketa.

17:00etan, Intxostiapuntan.

ZIORDIA *Comunicación no violenta*. Gatazkak hazteko aukera bihurtzeko. Hastapen hitzaldia emanen du Anahi Sarasolak.

17:00etan, Amaraunan.

IRURTZUN Larraungo eta Barañaingo bertso eskolen arteko bertso-desafioa.

18:00etan, Pikuxar euskal txokoan.

ALTSASU Etxarri Aranazko abesbatzaren eta abesbatza txikiaren *Disney forever* kontzertua.

19:30ean, lortia kultur gunean.

OSTIRALA 5

ETXARRI ARANATZ Beilatokia toki egokian.

19:00etan, Kale Nagusiko 7. ean.

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ Euskal



presoa Euskal Herrira kontzentrazioak.

20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske kontzentrazioa.

20:00etan, udaletxe parean.

ALTSASU *Perfectos desconocidos* filma.

22:00etan, lortia kultur gunean.

LARUNBATA 6

UNANU Beriainera igoera antolatu du Sakanako Mendizaleak taldeak.

09:00etan, plazatik.

ALTSASU Altsasu eta Landa arteko 80 km-ko joan-etorria egingen dute Barranka Txirindulari Taldeko errepide atalekoek.

09:00etan klubeko bajeratik.

IGANDEA 7

ALTSASU Otxaportillora 48 km-ko joan-etorria egingen du Barranka klubeko mendi-bizikleta taldeak.

09:00etan, klubeko bajeratik.

ALTSASU *Martinaren parke fantastikoa* Producciones Maestras konpainiaren eskutik.

17:00etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Argazki proiektzioa.

17:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

OLATZAGUTIA *Las aventuras a la víspera del año nuevo* balleta, Errusiako Maria Nicolayeva konpainiarena.

18:00etan, Erburua kiroldegian.

ALTSASU *Perfectos desconocidos* filma.

19:30ean, lortia kultur gunean.

ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa.

20:00etan, Foru plazan.

OSTEGUNA 11

ALTSASU *Suburbicom* filmaren emanaldia.

19:00etan, lortia kultur gunean

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

ESKELA



Juan Aguirre Asurmendi

Abenduaren 13an hil zen

Besarkada handi eta estu bat familiari



Iturmendiko Udala

JAIOTZAK

- Ion Zabala Cabada, azaroaren 27an Olaztin
- Aran Ganza Lopez, abenduaren 11n Altsasun
- Ibon Igoa Aboitz, abenduaren 11n Etxarri Aranatzen
- Iraia Galarza Zubiria, abenduaren 11n Urdiainen
- Xuban Karasatorre Aiestaran, abenduaren 12an Etxarri Aranatzen
- Hugo eta Duna Zamarrón Renedo, abenduaren 14an Altsasun
- Aetz Gonzalo Larraza, abenduaren 16an Etxarri Aranatzen

HERIOTZAK

- Agustin Larraza Uharte, azaroaren 26an Unanun
- Felix Mercero Barrena, azaroaren 28an Unanun
- Fermina Lakuntza Lizarraga lizarragatarra, abenduaren 11n Etxarri Aranatzen
- Purificación Unanua Lizarraga, abenduaren 12an Dorraon
- Jose Luis Pazos Larraza, abenduaren 17an Lakuntzan
- Luis Muñoz Agirre, abenduaren 18an Altsasun
- Mikaela Flores Flores, abenduaren 19an Arbizun

SAKANAKO PILOTA TX.

PARTIDUAK

GAUR, OSTIRALEAN, OLAZTIN

Kimuak:

17:30 Ulaiar-Urteaga / Olaiz-Carabias
Okiñena-Amiano / Saralegi-

Munarriz

Etxeberria-laben / Añazko-Sao

Roque

Gorka-Eduardo / Izagirre-Reparaz

Fernandez-Gonzalez / Reparaz-

Saez

Rubio-Lizarraga / Mitxelena-

Gastesi

Larrañaga-Aimar / Gasco-Alegre

GAUR, OSTIRALEAN, LAKUNTZAN

Txikiak eta umeak:

18:00 Gurmindo-Sarazibar (Olaz) /
Apaolaza-Vergara (Lak)Alegria-Alegria (Lak) / Beloki-
Olaetxea (Irur)

Lizarraga-Etxeberria (Irur) /

Etxabarri-Razkin (Arb)

Garmendia-Manjon (Arb) /

Ollo-Lakuntza (Lak)

Ducar-Razkin (Arb) / Berastegi-
Ganboa (Lak)

Escudero-Nagore (Irur) /

Zubiria-Jokin Olarra (Arb)

GAUR, OSTIRALEAN, ETXARRIN

Jubenilak:

18:00 Otxoa-Berastegi (Etx) /
Beloki-Lizarraga (Etx)

Ansotegi-Gonzalez (Etx) /

Olaetxea-Araña (Etx)

Ostiralean, Arbuzun, 18:30ean,

kimuak:

Aristizabal-Arretxe / Igoa-Azpeitia

Martiarena-Markina / Miteku-

Maren

Leiza-Gainzarain / Lizarraga-

Manjon

loritz-Enaitz / Zabala-Apaolaza

ABENDUAREN 26AN, ALTSASUN

Kadeteak:

12:00 Cidoncha-Agirretxe / Olabide-
Alegre

Sakanako Pilota Txapelketa aurrera

Gabonetan astebururo Sakanako Pilota Txapelketa jardunaldiak jokatuko dira Sakanako pilotalekuan. Guztira 112 pilotari lehiatzen ari dira.

Martija eta Altuna finago ibili ziren Labriten

PILOTA Ezkurdiari eta Zabaletari 15 eta 22 irabazi zieten larunbatean. Martijak eta Altunak 3 puntu dituzte eta Ezkurdiak eta Zabaletak 2. Asteburuan Binakako Txapelketako 5. jardunaldia dago jokoan eta partida gogorak espero dira

Binakako Txapelketako 4. jardunaldian, pilotari sakandarren arteko lehendabiziko lehia hartu zuen Labrit pilotalekuak.

Bikain hasi zen Ezkurdia. Hainbat gantxori esker, 5 eta 2 aurreratzea lortu zuten arbuzuarrek eta Zabaletak. Baina partida parekatuz joan zen. Martijak konfiantza hartu zuen eta behar zuen babes eman zion Altunari. Horrela, gipuzkoarrak bere erritmoa ezarri zuen eta 12 eta 18ko aldea lortu zuten amezketarrak eta Etxeberrikoak.

Ez zen Ezkurdiaren eta Zabaletaren eguna izan

Altunak pilota batzuk huts egin zituen bukaera aldera, baina larunbata ez zen Ezkurdiaren eta Zabaletaren eguna izan. Ez zuten egoera behar bezala probestu. Horrela, Altuna III.ak eta Martijak 15 eta 22 irabazi zuten eta txapelketako hirugarren puntua lortu zuten. Altunak nabarmendu zuen Martijak partida oso ona egin zuela. Martijak aipatu zuen ongi sentitu zela, "hasieran urduri, kosta egin zait partidan sartzea, baina gero disfrutatut egin dut". Ezkurdiak eta Zabaletak ez zuten aurreko jardunaldian Bengoetxearen eta Larunberen kontra emandako maila eman.

Binakakoan, momentuz Altuna III.a-Martijak eta Olaizola II.a-Imaz bikoteek hiruna puntu dituzte, Victor-Albisuk, Elezkanoren eta Ezkurdia-Zabaletak bina eta Bengoetxea-Larunbek eta Irribarria-Merino II.ak bana. Oraindik asko dago erabakitzeke, 10 jardunaldi falta baitira.

Datorrena

Altuna III.ak eta Martijak Victor eta Albisu izanen dituzte aurkari bihar Labriten. "Partida oso gogorra izango da; niri pilota asko bidaltzen saiatuko dira, eta adi-adi egon beharko dut" azaldu du Martijak. Bestalde, Ezkurdiak eta Zabaletak Pazko egunean jokatuko dute Elezka-



Zabaleta eta Martija izan ziren domina banaketan. LAKUNTZA PILOTA TALDEA

Pilota topaketa Lakuntzan

Lakuntza, Olaztiko Sutegi eta Tuterako Eraso pilota elkarteetako 30 pilotari igandean bildu ziren Lakuntzako klubak antolatutako pilota topaketan. Klub ezberdinetako pilotarien artean bikoteak osatuta, gozatu ederra hartu zuten. Domina jaso zuten guztiak.

Binakako 5. jardunaldia

- **Bengoetxea VI.a-Larunbe / Irribarria-Merino II.a** (ostirala 18:00, Arrasate. ETB1)
- **Olaizola II.a-Imaz / Urrutikoetxea-Aretxabaleta** (larunbata, 17:00, Bilbo)
- **Victor-Albisu / Altuna III.a-Martija** (larunbata, 17:00, Iruña. ETB1)
- **Ezkurdia-Zabaleta / Elezkanoren II.a-Rezusta** (astelehena, 17:00, Eibar. ETB1)

no II.aren eta Rezustaren kontra. Bi bikoak bina punturekin daude eta, hortaz, oso lehia estua espero da.

Nafarroako txapeldunak

Nafar Kirol Jolasetako (NKJ) Pilota Txapelketako txapela batzuk etorri dira Sakanara. Binakako kimuen 3 mailan, Auñamendiko Eziozari eta Errori 8 eta 18 irabazi zieten Altsasuko Pilotajaukuko Gonzalezek eta Igoak. Haurren 3 mailan Pilotajaukuko San Romanek eta Agirretzek 18 eta 4 hartu zituzten menpean Uharteko Barberena eta Urrizola eta jubenilak 2 mailan Etxarriko Gure Pilota taldeko Otxoak eta Lazkozek 22 eta 16 irabazi zieten Zugarraldeko Villanuevari eta Lergari.

Sorgiñak
taberna

LAKUNTZA
948 576 357

Taxi
Jose Iturralde
629 42 80 25

9 lagunendako Taxia / Irurtzun
taxijoseiturralde@gmail.com
www.taxijoseiturralde.com

Arbizu
Embutidos y patés

Tradizioaren zaporea

www.embutidosarbizu.es

info@embutidosarbizu.com
T. 948 460 628

PREFERENTE MAILA

EMAITZAK	
Etxarri Aranatz – Lagun Artea	2-0
SAILKAPENA	
1. Lagunak	27
14. Lagun Artea	10
15. Etxarri Aranatz	9

PARTIDUAK

ILBELTZAREN 14AN

Lagun Artea – Artajonés *Lakuntzan*
Aibarés – Etxarri Aranatz *Oibarren*

Etxarriko San Donato zelaiak hartu zuen preferente mailako talde sakandarren arteko derbia. Bi taldeek ongi ekin zioten partidari. Lagun Artea hobekien zegoenean, Alainek Etxarriren aldeko gola sartu zuen. Bigarren zatian etxarriarrek dominatu zuten eta 20 minuturen faltan Andonik bigarrena lortu zuen. Lagun saiatu zen, baina Gorriz atezainak bikain defendatu zuen Etxarri.

ERREGIONAL MAILA

EMAITZAK	
Altsasu – Beti Kozkor	5-0
SAILKAPENA	
1. Lagunak B	28
6. Altsasu	20

PARTIDUAK

ILBELTZAREN 14AN

Altsasuk atsedean jardunaldia du

Lekunberrikoen kontra, gol festa ederra izan zen Altsasun. Piti, Javi, Joseba, Gorka eta Patxi izan ziren golegileak.

ELOMENDIKO TXAPELK.

EMAITZAK	
Zaldua – Ardoi Poukas	0-2
SAILKAPENA	
1. Unziti	28
4. Zaldua	16

Elomendiko Futbol Txapelketan laugarrena da Zaldua. Hurrengo jardunaldia ilbeltzaren 14an jokatuko da.

FRONTENISA Gabonetan, frontenis txapelketak Sakanan

Larunbatean 12 orduko IV. Irurtzun-Arakil Frontenis Txapelketa jokatuko da Irurtzango eta Etxarrengo pilotalekuan, goizeko 8:00etatik aurrera (izena emateko 699 45 34 90). Eta Lakuntzan Biltoki Frontenis Txapelketa antolatu dute abenduaren 26tik 30era, goizeko 10:00etatik aurrera, Behar-Zana pilotalekuan.

Olga Garziandia biatloian, Alpeetan

BIATLOIA-IRAUPEN ESKIA Olga Garziandia IBU Junior Cupean lehiatzen ari da, Biatloi Mundialean. Iraupen eskia eta tiroa uztartzen ditu Biatloiak. Horretaz gain, iraupen eskiko Espainiako Kopan lehiatzen hasi da etxarriarra

Olga Garziandia Ijurko eskia-tzaile etxarriarrek pausu bat aurrera eman du eskian. Uhar-te Ipar Eski Taldeko kidea da Olga, bere aita Benar Garziandia Goñirekin batera. Aurten junior mailako lehen urteko mailan lehiatzen ari da Olga, eta aste-buruan Espainiako Iraupen Eskiko Kopako lehen proban parte hartu zuen, Baqueira Bereten. Ongi ekin dio denboraldiari, baina aurten beste kirol batean ere parte hartzen hasi da etxarriarra: Biatloian. Kirol honek iraupen eskia eta tiroa lotzen ditu: eskia-tzaileek iraupen eskian parte hartzen dute, karabina bizkarrean dutela, eta tartean tiro ariketak egin behar dituzte.

IBU Junior Cup eta Espainiako Iraupen Eskiko Kopa

“Olga aurten hasi da biatloian. Urrian hasi zen, eta abenduaren 12an Alpeetan, Austriako Tyrolean, Obertilliachen lehiatu zen Uhar-te Ipar Eski Taldeko taldekide batekin, Unai Palaciosekin, IBU Junior Cupean, Biatloi Mundialean, junior mailan. 101 parte-hartzaileetatik 96.a sailkatu zen. Oso pozik dago, elurraz, eskiaz eta biatloiaz gozaten ari baita, eta hori da garrantzitsuen” aipatu digu bere ama Izas-



Olga Garziandia Obertilliachen, IBU Junior Cupean parte hartzen. IZASKUN IJURKO

kun Ijurko Urrestarazuk. Hurrengo proba errege eguneko asteburuan jokatuko da, Frantziara, Suitzatik gertu.

Elurrari lotuta

Gartziandiatarren bizia elurrari lotua dago. Udan, rollerskian ibiltzen dira, entrenatzeko, eta neguan ia asteburu josten dute elurretara, eta txapelketak eta probak bata bestearen atzetik dituzte. Esaterako, aurreko asteburuan Iraupen Eskiko Espainiako Kopan lehiatu zen etxarriarra, juniorren lehen urteko

mailan. Lauzpabost proba ditu Kopak, eta hurrenak Belaguan, Candanchun eta Linzan jokatuko dira. Eta asteburu honetan Belaguako Eski Martxan parte hartuko dute Olgak eta Benarrek.

Aurreko denboraldian Espainiako Iraupen Eskiko Kopako master II mailan hirugarrena sailkatu zen Benar Garziandia. Alaba, Olga, kadeteen mailan aritu zen eta hamargarrena sailkatu zen, belaunean arazo bat tarteko, bere sasoi puntuan egon gabe. Aurten osasun arazorik gabe, noraino helduko da?

Gabonetako areto futbol torneoak Irurtzunen eta Olaztin

ARETO FUTBOLA Abenduaren 30ean 12 orduko emakumeen torneoak Irurtzunen eta Olaztin bi torneo

Abenduaren 30ean II. Emakumeen Areto Futbol Txapelketa antolatu du Guan taldeak, Irurtzango Udalaren laguntzarekin, Irurtzango kiroldegian. 12 orduko txapelketa izango da, goizeko 9:00etan hasiko dena. Iaz

10 taldek eman zuten izena eta Gasteizko New Team izan zen garailea. Izena ematea zabalik dago (676 572 478 (Iñaki).

Olaztin bi torneo jokatuko dira Erburua kiroldegian. Abenduaren 30ean Hierros Aldasoro II.

Torneoaren txanda izango da, 16:30ean. Araiako Alipendik Zalditxo izango du aurkari eta Sutegi Zirauntzak Xota B. Finala 19:00etan jokatuko da.

Eta hurrengo egunean, abenduaren 31n, II. Olaztik Gabonetako Txapelketa jokatuko da, benjamin mailakoa, goizeko 10:00etan. Lakuntzako Lagun Arteak Altsasu izango du aurkari eta Sutegik Etxarri Aranatz. Galtzaileek 3. eta 4. postua erabakitzekeo partida jokatuko dute eta irabazleek, aldiz, finala.



Aristorena eta R.de Larramendi. ARTXIBOA

PALA Aristorena eta Ruiz Nafarroako txapelkunak

Asteazkenean Nafarroako Kluben Arteko Emakumezkoen Pala Txapelketako finala jokatuko zen Labriten. Oberena klubeko Yanira Aristorena etxarriarrek eta Maite Ruiz de Larramendik 30 eta 15 hartu zituzten menpean Mendillorri klubeko Etxarri eta Urtasun. Nafarroako txapela lortuta, Sakanako Emakumezkoen Pala Txapelketa dute orain helburu Aristorenak eta Ruizek.

SAK. NESKEN PALA

EMAITZAK	
Promozioa	
Naroa Suarez-Anne Maiza / Miren Larrarte-Uxue Mendinueta	11-30
Garazi Suarez- Izar Parot / Irati Otaegi- Olaia Eizagirre	14-30
Elitea	
Yanira Aristorena-Maite Ruiz de Larramendi / Miren Goikoetxea- Garazi Eizmendi	30-27

PARTIDUAK

LARUNBATEAN ALTSASUN

Promozioa	
10:00 Suarez-Maiza / Suarez- Parot Larrarte-Mendinueta / Otaegi-Eizagirre	
Muneta-Mendizabal / Goikoetxea-Eizmendi	
Eliteak	
12:00 Murillo-Etxaniz / Aristorena-Ruiz de Larramendi	

Sakanako Nesken Pala Torneoa Mank-eko Kirol Zerbitzuak Gure Pilota elkartearen laguntzarekin antolatutako XIII. Sakanako Nesken Pala Torneoan puntako palistak lehiatzen ari dira, bi mailatan: gaztetxoetan eta helduen mailan, elitean eta promozioan. Bihar 4. jardunaldia jokatuko da Altsasun eta final handia, berriz, abenduaren 31n jokatuko da, goizez, Etxarri Aranatz.



GUAIXE

Sakanakoan, Lacruz txapeldun

XAKEA Mankek Zaldi Beltza Xake Taldearen laguntzarekin antolatuta, XVIII. Sakanako Xake Txapelketa jokatu zen Arbizuko ekokanpinean. 16 xakelari lehiatu ziren, horietatik 5 sakandar. Txapelketa oso estuan, gazteenak, Oier Lacruzek, irabazi zuen, Cesar Arreseren eta Juan Sancifñenaren aurretik. Victor Barriga izan zen sakandarren artean onena.

Gabonetan, CBASK taldeen aurkezpena

SASKIBALOIA Abenduaren 30ean Juanjo Marin Memoriala antolatu du Altsasuko Saskibaloitako taldeak Zelandi kiroldegian. Hitzaldia, CBASK taldeen aurkezpena, Garabatos taldearen kontzertua eta senior mailako partida izanen dira

Altsasuko Saskibaloitako Taldeak, CBASK-ek, Juanjo Marin Memoriala antolatu du abenduaren 30ean Zelandi kiroldegian, istri-puz hildako saskibaloitako jokalaritza ohia gogoratzeko. Goizeko 11:00etan Gorka Nuñezek kantzako saskibaloitako entrenamenduetan buruz eskainiko duen hitzaldia-rekin. Arratsaldean, aldiz, 16:00etatik aurrera hasiko dira ekitaldiak. Lehenik eta behin, CBASK-ek dituen talde guztien aurkezpena egingen da Zelandin. Ondoren, Garabatos taldeak kontzertua eskainiko du eta 18:15etik aurrera, Nafarroako Saskibaloitako Federazioko Gizonezkoen 1. Senior Autonomiko mailako



CBASKek bere taldeak aurkeztuko ditu.

lako partida jokatuko dute CBASK-ek eta Payvi tabernak.

CBASK gizonezkoen seniorra

CBASK gizonezkoen senior taldeak Nafarroako Saskibaloitako Federazioko Gizonezkoen 1. Senior Autonomikoko mailan jokatzen du. Sailkapenean Liceo Monjardin F taldea doa buruan (19+9 puntu). CBASK sailkapenean hirugarrena da (16+8 puntu). Ligako hurrengo jardunaldia ilbeltzaren 13an jokatuko dute, Tafallan, sailkapenean 10.a den Escaleras Aguerri taldearen kontra, 18:30ean. Juanjo Marin Memorialeko lagunartekoa entrenamendu bikaina izanen da.

[**ESKAINTZAK** UDAZKEN - NEGUA 2017]

EZ DUT BESTE EZERENGATIK ALDATUKO

(EZ BADA BESTE STIHL BATENGATIK)

MOTOZERREN RENOVE PLANA
150€
RINO BEZA BARNE

Ekinza eta eskaintza baliozkoak 2017ko abenduaren 27ra arte

STIHL

Zure denda espezializatuan bakarrik



Urtea korrikan despeditzeko aukera izango dugu Altsasun, Olaztin eta Irurtzunen. ARTXIBOA

Agur 2017, korrikan

ATLETISMOA Altsasuko 39. San Silvestreaz eta 16. Olaztiko Lasterketaz gain, aurten estrainekoz I. Pikubestrea antolatu dute Irurtzunen. Urtea korrikan despeditzeko deialdia egin dute aipatu proben antolakuntzan dabilzan sakandarrek

Abenduaren 31n zapatilak jantzi eta 2017. urtea korrikan despedituko dute sakandar askok. San Silvestre lasterketak probarik herrikoiak eta kuttunenak dira korrikalari gehienendako. Sakanan hiru lasterketa antolatu dira aurten: Altsasuko San Silbestreak 39. edizioa beteko du aurten. Nafarroako zaharrena da Altsasuko. Olaztiko San Silbestreak, aldiz, 16. edizioa izanen du eta lehenengoz I. Pikubestre lasterketa antolatu du Irurtzunen Pikuxar euskal txokoak.

Altsasukoa, zaharrena
Dantzaleku-Sakana klubak eta Sakana Triatloi Taldeak antolatuta, aurten 39. edizioa beteko du Nafarroako proba beteranonenak. Aipatu proba, Mario Lopez de Uralde Memoriala izendatu zuten, bertan 17 urtez gailendu zen Mario Lopez de Uralde korrikalari altsasuarren omenez.

Haurrak 18:00etan eta helduak 19:00etan
Abenduaren 31n, igandearekin, arratsaldeko 18:00etan emanen

diote hasiera lasterketari, gaztetxoeren lasterketarekin. Aurtebenjaminak (400 m), benjaminak (800 m) eta kimuak (1.200 m) ariko dira, plazatik abiatuta euren propio prestatutako distantzia osatzen. Haurren kategoriakoek helduen proban parte hartuko dute, euren kasuan zirkuituari buelta bat emanaz. Ondoren, helduen proba guztia osatu nahi badute, aurrera jarraitu dezakete.

Kadeteak, jubenilak, seniorrak eta beteranoak 19:00etan udal-txe aurretik abiatuko den proba

nagusian ariko dira. Korrikalariak Altsasun barna prestatutako zirkuituari hiru buelta eman beharko dizkiote. Aurten proba luzeagoa izango da, 4,6 km-etatik 5 km-ra borobildu baitu antolakuntzak. “Jende askok parte hartzen du San Silvestrean eta beti tapoia sortzen zen hasieran. Horregatik, aurten udaletxe partetik Zelai kalean gora egingen dugu, Aldasoro harategian buelta hartu eta ondoren ohiko zirkuituarekin bat egingo digu” adierazi digute Dantzaleku Sakanakoek.

Probako irabazleek txapela jantziko dute. Trofeo onordez, lehendabiziko hirurek, gizonak eta emakumezkoek, Ford Gabirondok, Katealdek eta Hermanos Sayasek prestatutako loteak jasoko dituzte opari.

2016an 578 korrikalari Altsasun
Aurreko urtean 578 korrikalarik parte hartu zuten San Silbestrean, 430 proba nagusian eta 148 txikietan. Altsasuko Sergio Garcia de Eulate eta Olaztiko Izaskun Beunza gailendu ziren. Antolatuak aurten ere urtea korrikan despeditzera animatu dute.

Izena emateko: www.dantzalekusakana.com

Izena ematea dohainik da, eta Dantzaleku Sakanak tramitazioa web gunean egiteko gomendioa egin du. Bestela, egunean bertan proban apuntatzeko aukera egongo da, 18:30ak arte.

Juntan aldaketak

Dantzaleku Sakana klubeko juntan aldaketak izan dira. Leyre Palacios da lehendakaria, Jone Pelaez lehendakariordea, Ginesa Lopez diruzaina, Maite Zornoza idazkaria eta Mari Gwen Davies, Gorka Garcia de Eulate, Aingeru Azazeta, Eusebio Vinaigre, Mikel Goikoetxea eta Peio Bergara bokalak.

Olaztin lau kategoriako San Silvestrea

San Silbestre lasterketaren 16. edizioa jokatu da urteko azken egunean Olaztagutian, 18:00eta-

tik aurrera, Sutegi elkarteak antolatuta. 16:30ean zabalduko da izena ematea, Olaztiko frontoian. Urtero moduan, 4 kategoriako lasterketak antolatu dituzte: txikiak, 7 urtera artekoak (300 m), 8-11 urte bitartekoak (600 m), 12-15 urte artekoak (zirkuituari itzuli bat, 1.240 m) eta helduak. Kasu honetan herri gunean antolatutako zirkuituari 4 bira eman beharko diete korrikalariak, 5 km osatzeko, 19:00ak aldera abiatuko den lasterketan. Probak frontoia izango du irteera eta helmuga.

Giro polita izaten da Olaztiko proban. Bukaeran, kategoriaz guztietan maila bakoitzeko lehen hirurek, emakumeek eta gizonzkoek, trofeoak jasoko dituzte eta korrikalari guztiei domina banatuko zaie, oroigarri. Lasterketak burutzen diren bitartean urdaiazpikoa zozketatuko da bildutako artean.

I. Pikubestre, Irurtzunen

Irurtzungo Pikuxar Euskal Txokoak Pikubestre herri lasterketa antolatu du lehenengoz, San Silvestre irurtzundarra. Abenduaren 31n ospatuko da, 16:00etik aurrera, Gernika plazatik abiatuta.

Lehen txandan 6 urte bitarteko neska-mutikoak ariko dira (150 m), ondoren gaztetxoak, 6 eta 14 urte bitartekoak (300 m) eta, gainontzeko guztiek 16:30ean hartuko dute irteera, 4,2 km-ko Pikubestrea osatzeko.

Oparia eta pintxo potea

Helburua ahalik eta partaidetza handiena lortzea denez, izena ematea doan izanen da, eta partaide guztiek saria jasoko dute helmugan. Horretaz gain, korrikalari guztien artean opariak zozketatuko ditu antolakuntzak eta pintxo pote doakoa izanen da. “Urteari kirola egiten eta festa giroan agur esateko aukera ezin hobea da Pikubestre. Bertan aritzera animatzen ditugu herritarrak” diote Pikuxarrekoek. Izena ematea, egun berean edo aurretik, <http://xurl.es/PikubestreInscrip> helbidean.

**non
erabili**

SAKANA OPTIKA

ALTSASU

%15eko deskontua graduatutako betaurreko osotan (montura+lenteak). %10eko deskontua beste dozein artikulutan eta ikusmenaren errebisioa doan.

HOSTOAK LOREGINTZA

LAKUNTZA

40 €ko erosketarekin, %10eko deskontua lorontzietan.

ILAIA ILEAPAINDEGIA

ETXARRI ARANATZ

Deskontu bereziak.

T. IRIARTE

IRURTZUN

50 €ko erosketa eginez gero etxeko produktua opari.



Aurreko urtean 105 txirrindulari igo ziren Altsasutik Urbasara.

Altsasun ere bizikleta gainean esaten zaio agur urteari

TXIRRINDULARITZA Abenduaren 31n, 12:00etan, XXXV. San Silvestre Zikloturista Martxa antolatu du SDAk

Aurten 35 urte beteko ditu Sociedad Deportiva Alsasuak (SDA) antolatutako XXXV. San Silvestre zikloturista martxa-Urbasako igoerak. "Uste dugu estatu mailan antolatzen den txirrindularitza proba bakarria dela, normalean San Silvestreak korrikan egiten baitira. Urteurren berezia denez, eta txirrindulariei euren fidelotasuna eskertzeko, Conservas del Reynorekin elkarlanean zerbait berezia egitea erabaki dugu" adierazi du SDAko txirrindularitza arduradun Felix Mazkiaranek. Horrela, Altsasuko San Silvestre zikloturista martxan izena aurretik ematen dutenek, 18 euroko inskripzioa egiten dute eta trukean, Conservas del Reynoko saskia jasoko dute, 45 euroko balioa duena. "Opari polita dela pentsatzen dugu" gaineratu du Mazkiaranek. SDA klubaren web orriaren bitartez www.sdalsasu.com -edo sdalsasu@gmail.com epostaren bidez eman daiteke izena.

Bestela, probaren egunean bertan izena emateko aukera dago. Kasu horretan, inskripzioa 10 eurokoa izango da eta txirrindulariek kamiseta jasoko dute opari.

Altsasutik Urbasara

Aurreko urtean arratsaldetik eguerdira aurreratu zuten Altsasuko San Silvestre zikloturista, eta guztiz asmatu zutela azaldu digu Mazkiaranek. "Eguerdian izatean, parte-hartzea handitu egin zen. 105 txirrindularik hartu zuten parte. Aurten ere horrela egingo dugu, abenduaren 31n aterako dira txirrindulariak, 12:00etan. Olaztiraino taldean joango dira eta gero, Urbasaraino igoko dira, bakoitza bere erritmoan. Urbasa gainean, salda beroa izango dute zain. Gero, SDAko Altsasuko egoitzan oroi-garriak banatuko ditugu: aurretik izena emandakoei saskiak eta egunean izena eman dutenei kamisetak" aipatu digu Felix Mazkiaranek.

Goizean txirrindulari proba ez lehiakorra izatean eta, arratsaldean, San Silvestre atletismo proba, egun osoan Altsasun giro polita egingo dela nabarmendu du altsasuarrak. "Lehen guztia arratsaldez pilotzen zen. Orain, egun osoan dago zertaz gozatu. Bi probak egiten dituzten pertsonak ere badaude, eta, horrela, lasaiago izango dute bietan aritzea" nabarmendu du SDAko txirrindularitza arduradunak.

Elurpean ospatu zen Mendigoizale eguna

MENDIA Igandean mendizaleek Aralarko santutegiko aterpean, beroan, ospatu zuten mendizaleek euren eguna. Lagunartean ospatzeko eguna, askok urtea despeditzeko eta urteari ongi etorria emateko mendi irteerak adosteko aprobetxatu zuten

Gabonen aurreko asteburuan ospatzen da Mendigoizale Eguna. 1964. urtean hiru mendizale nafar hil ziren arrazoi ezberdinegatik eta urte horretan hiru mendizaleak gogoratzeko ekitaldia egin zen Aralarren. Hurrengo urtetik aurrera oroimen ospakizuna antolatzen hasi ziren, urtero, eta aurtengoa 52. Men-



Azkeneko txanpan elurra izan zuten mendizaleek. SAKANAKO MENDIZALEAK

Agur 2017! Ongi etorri 2018! mendian

Trinitatea. Abenduaren 31n,

Irurtzundik, 9:00etan, txokolatada eta Trinitatera igoera. Iratxo eta Pikuxar

Aizkorri. Abenduaren 31n. Altsasuko Mendigoizaleek eta Olaztik Sutezik deituta.

Balankaleku. Abenduaren 31n, Ataboko langatik, 9:00etan. Dantzaleku Sakanako mendi atala.

Lakuntzaskoari. Zabalarte mendi elkarteak antolatuta, abenduaren 31n, VIII. Lakuntza-Eskuari igoera, goizeko 8:00etan, plazatik. Goian hamaiketako.

Berriain. Ilbeldaren 6an, larunbatarekin, 9:00etan Unanutik. Sakanako Mendizaleak taldea.

Bargagain. Ilbeldaren 7an, domekan, Altsasuko Mendigoizaleek antolatuta. 8:00etan, plazatik. Goian hamaiketako eta festaxoa.

digoizale Eguna izan zen. Mendizaleek egutegietan gorritz markatutako zita, klub ezberdinetako mendizaleak bildu ziren, eurekin ez daudenak oroitzeko eta aspaldiko lagunak ikusteko, urtea despeditzeko ekitaldi bero eta berezian.

Uharte Arakildik, Lakuntzatik, Madotzetik, Lizarrustitik, Lekunberri aldetik... bide eta xenda ezberdinetatik igo ziren mendizaleak Aralarrean. Elurtuta, zuri-zuri zegoen Aralar. Gora helduta, goizeko 11:00etan mendizaleen meza izan zen: euren mendi materiala bedeinkatu, zendutako mendizaleak gogoratu eta Aralarko aingeruari musu emateko aukera izan zuten han bildutakoek. Ondoren, mendizaleak auzatean bildu ziren. Aurten Boscos eta Irurtzango Iratxo klubek izan zuten eguna antolatzeko ardura. Salda beroa

izan zen protagonistetako bat. 100 salda litro inguru banatu kilo, 20 urdai kilo, 6 gazta kilo eta 100 ogi barra prestatu zituzten. Kanpoko hotzari aldean, epela eta beroa zen aterpearen giroa. Aspaldiko lagunekin bildutako hitzordu paregabea, "aspaldiko, zer moduz?" esaldia zen entzunetako bat.

Jesus Mari Feliu izan zen Mendizale Eguneko sustatzaileetako bat. "Anaitasun zita hau mantentzea garrantzitsua da, eta ekitaldira belaunaldi berriak batzea" zioen mendizale beterranoak. Eta beharrezkoa da, Aralarren bildutako gehienak beterranoak baitziren. Baina baziren kimuak, nagusien ondoan, Mendillorriko Mendizale taldeko 28 neska-mutil baitzuden, 10 eta 16 urte artekoak, mendizaleen etorkizuna.

JOSELEN MODA

ALTSASU

100 €tik gorako erosketetan, 10 €tako deskontu-bale bat hurrengoan erabiltzeko.

IÑAKI BIZARTEGI ILEAPAINDEGIA

ETXARRI ARANATZ

%10 eko deskontua produktuetan.

GIXANE ESTETIZISTA

ALTSASU

Produktua opari.

PINPILINPAUSA

ALTSASU

50 €tik gorako erosketetan %10eko deskontu-bale bat hurrengo erosketarako.



70 parte hartzaile Etxarriko Txakurkrosean

TXAKURKROSA Txakurkrosean Jon Gonzalez eta Sara Agirre gailendu ziren, Txakurkros herrikoian David Neira eta Leire Ijea, patinetan Imanol Cid eta Ainara Elbusto eta bizikletan Joseba Garcia. Sakandarrek primerako lana egin zuten

Xalok kirol, dietetika eta nutrizio zentroak eta Euskanikross taldeak antolatuta, igandean jokatu zen, Etxarriko kanpinean, I. Etxarri Aranazko Txakurkrosa. Hotza eta tarteka euria ari zuen, baina parte-hartzaileak ez ziren kikildu, txakurrekin korrika egiteko hobia baita hotza beroa baino, eta, azkenean, 70 parte-hartzaile inguru aritu ziren I. Etxarri Aranazko Txakurkrosean.

Proba ikusgarria

Antolakuntzan ibili zen Euskanikross taldeko Igor Artieda etxarriarrak adierazi digunez, balorazio positiboa egiten dute. "Ibilbidearen ikusgarritasuna, hori aipatu ziguten parte-hartzaileek. Izugarri gustatu zitzaizten. Eskarmentu handiko jendea etorri zen gure proban aritzera, eta txundituta zeuden. Izan ere, oso teknikoa da, eta bidean denetatik zegoen: desnibeleko bideak, desnibel gabekoak, eje-bueltak, ura, putzuak... gozame-na. Lokatzez beteta iritsi ziren helmugara, baina pozik. Izan ere, proba hauetan ibiltzen garenok lokatza gustuko dugu".

Hainbat modalitatean jokatu zen proba. Goizeko 8:00etan al-baitaria txakurrei kontrol probak pasatzen hasi zen, txakurren



Ibilbidearekin txundituta zeuden proban parte hartu zutenak. BORJA EIZAGIRRE

URTASUN, LANZ, MENDIOLA, ETA URDANIZ IZAN ZIREN ETXARRIN ARITU ZIREN SAKANDARRAK

ongizatea, hori baita proba hauen arau nagusia. Goizeko 9:00ak inguruan bikejoring edo bizikletan doazanak atera ziren, eta haiei lotuta, euren txakurrak. 6 km inguruko ibilbidea zuten, baina antolakuntzak aldaketak

egin zituen, euriarengatik bide batzuk arriskutsuak zeudelako. 6 parteide izan ziren bikejoringean eta 7 patinean. Ondoren Txakurkros herrikoian parte hartu zuten 12 kideek hartu zuten irteera, euren txakurrei lotuta 3,4 km egiteko, eta, azkenik, Txakurkros proba nagusian parte hartu zuten 50 kideak (6,3 km) eta euren txakurrak. Izan ere, bizikletan eta patinetan aritu ziren parteide batzuk ere korrikazko proban aritzera animatu ziren. Ibilbide luzeko lehenengo kilometroa eta azkeneko

bi kilometro erdiak Triku Trail mendi lasterketakoak ziren, paraje bikainak.

Kronometrajearen arazoak

Igor Artiedak aipatu digunez, arazo eta akats batzuk izan zituzten kronometrajearen. "Naiz eta dena ongi egiten saiatu, akats batzuk izan genituen. Baina parteideekin hitz egin eta gero, zuzendu genituen. Guretzat garrantzitsuen da parte-hartzaileak oso gustura ibili zirela. Antolakuntzari zorionak ematera hurbildu ziren asko. Sare sozialetan ere aipamen gehienak ildo horretatik doaz" gaineratu digu, pozik. Guztia antolatzen 30 lagun inguru ibili ziren.

Txakurkros txikian zortzi haurrek osatu zituzten probako 800 metroak.

Sakandarrak bikain

Txakurkrosa proba nagusia Jon Gonzalez Garciak (20:45) eta Sara Agirrek (24:37) irabazi zuten. Sakandarren artean, Xuban Mendiola 36.a sailkatu zen (29:31) eta Gema Urdaniz 44.a (40:05). Txakurkros herrikoian David Neira eta Leire Ijea izan ziren azkarrenak. Patinen gaineko proban Imanol Cid izan zen lehena eta Juan Bautista Urtasun urdiaindarrak bigarrena. Emakumezkoetan, aldiz, Ainara Elbusto gailendu zen. Bukatzeko, bikejoring edo bizikletan, Joseba Garcia Urkijo nagusitu zen (11:03). Igor Lanz arakildarra seigarrena sailkatu zen (16:07).

Kategoria bakoitzeko lehendabiziko hirurek jaso zuten saria, Etxarri Aranazko plazan. Horretaz gain, bertako produktuen loteak zozketatu ziren. Antolakuntzatik proba gehiago antolatzea ez dute baztertzen, akatsak zuzendu eta gero.



Olaztiarrak dira kopako txapeldunak.

Beunzaren eta Audikanaren Sakanako kopak

ATLETISMOA Mank-en eta Lasa Kirolak Sakanako Atletismo Kopako sariak ilbeltzean banatuko dira

Aurten 5 lasterketek puntuatzen zuten Sakanako Mankomunitateak Dantzaleku Sakana klubaren laguntzarekin eta Lasa Kirolak babesarekin antolatutako Sakanako XIV. Atletismo Kopa-Lasa Kirolak Sariak: IV. Ziordiko Herri Krosak (maiatzak 20), Bakaiku-Iturmendiko XIV. Aitzkozar Herri Krosak (ekainak 10), Ergoienako XIV. Birak (irailak 23), Sakanako XVII. Herri Lasterketak (urriak 21) eta Barrikarteren XXXVII. Oroimezko Oinezko Lasterketak (abendua 8, Altsasu).

Kopa Olaztira

Emakumezkoetan Izaskun Beunza Azazeta olaztiarra izan da txapelduna, Ginesa Lopez Cid altsasuarraren eta Leire Estarriaga Navarro etxarriarraren aurretik. Eta, gizonezkoetan, Raul Audikana Arrese olaztiarra gailendu da, Sergio Garcia de Eulate altsasuarraren eta Francisco Javier Gomez Fernandez aurretik.

Ilbeltzaren bukaeran banatuko dira sariak. Txapeldunek 80 euro jasoko dituzte kirol materialean; bigarrenak 60 euro eta hirugarrenak 40 euro. Horretaz gain, Kopako bost probatan parte hartu duen Santi Agirre Galarzak sari bat jasoko du.

Sakanako herri kirolarien festa

Ziordiko frontoiak Sakanako Herri Kirol Jardunaldia hartu zuen igandean. Sakanako Aizkora eta Harri Jasotze eskoletako kideez gain, Andra Mari eta Iñigo Aritza ikastolekako soka tiratzaileak eta trontzalariek eta Sakanako aizkolariek hartu zuen parte, 41 parteide, herri kirolari eta laguntzaileen artean. Ondoren bazkaltzera bildu ziren guztiak.



MANK



Ikasleak Olatz Zugastirekin entseatzten. IÑIGO ARITZA IKASTOLA

Olatz Zugasti, Iñigo Aritzako ikasleak lagun dituela

Zugastik "Ur goiena, ur barrena" diskoa aurkeztuko du hilaren 30ean, 19:30ean, Altsasuko lortia kultur gunean

ALTSASU

Urteko aurreneko eguneko goizaldean Sakanako hainbat herrietan zabalduko den errepika da *Ur goiena, ur barrena* kantuarena. Herri kantuaren izenburua Olatz Zugastiren azken diskoaren titulua (2015, Elkar) bada ere. Bizitzari eta gure herriari buruzko gogoetez betetako 13 kantuk osatzen dute lan hori eta bat Resurreccion Maria Azkuek Urdiainen jasotako urte zahar gaueko kantua da. Zugastik diskoa aurkeztu zuenean kantuaz esan zuen: "oso irudi politikak dauzka, gure imajinarioaren, euskal imajinarioaren, parte agertzen da bertan".

Zugastik kantatzearekin batera harpa jotzen du. Eta kantu iradokitzaileak emateko aldamenen lau musikari ditu ondoan. Baina Zugastik Altsasuko emanaldian laguntzaile gehiago izanen ditu: Iñigo Aritza ikastolako DBHko 17 ikasle kantuan ariko dira berarekin, baita Erkuden Flores irakaslea ere, bi piezatan biolina joko duena.

Elkarlanaz

Floresek azaldu digunez, garilean jaso zuten kontzertua emateko proposamena. "Ikastolekiko sentsibilitate handia du". Eta gogora ekarri du Zugastik Gau hotzenezan ere diskoan argitaratutako Bizirik gaudelako kantua, "ikastolak herriari (bera sortu duen herriari) egiten dion amodio kantua" Zugastiren hitzetan. "Berak proposatu zigun ikasleek kontzertuan parte har-

tzeko aukera ere. Iñigo Aritza ikastolak baiezkoa eman zion proposamenari, "euskal kantuak lantzeko modua izateaz aparte, ikastolaren balioekin bat egiten duelako", argitu digu irakasleak.

Kantariarekin zehaztu zituzten zein kantu landuko zituzten ikasleek. "Abestiaren hezurdura indartzen ariko dira ikasleak, duoak, bigarren ahotsak eta bes-telakoak egiten". Emanaldia behar bezala prestatzeko, lehenik, atsedendalditan elkartzten hasi ziren eta, gero, astelehen arratsaldeetan. Azkenik, Zugastirekin hamabostean behin aritu dira. Etorkizuna dantza taldean aritzen diren ikastolako dozena erdi ikasle ere parte hartuko dute emanaldian. Zugastiren kantu baten doinura dantzatu dute Iñaki Agirrek propio sortutako koreografia. Emanaldia Nafarroa Oinezan aurreko kultur programazioaren barruan dago.



Izar hautsa dantza emanaldia bueltan

Dantzarima dantza taldeak bere bigarren obraren emanaldi berria eskainiko du. Joan den urtean lortia bitan bete ondoren, eguberrian emanaldi berria egingen dute. Hilaren 26an, asteartean, izanen da, 19:30ean, Altsasuko lortia kultur gunean

ALTSASU

Irantzu Gonzalez Azpirotzek zuzentzen du Dantzarima dantza konpainia eta Izar hautsa ikuskizunarekin bidaia baterako gonbidapena egingen digute. "Behin bakarrik antzeztu genuenez, beste bigarren aurkezpen bat egiteko gogoekin geunden", aitortu digu Dantzarima konpainiako zuzendariak. Eta gaineratu du: "konpainia obra berriz antzezteko irrikitan zegoen; aurreko emanalditik oroitzen eta sentipen oso bereziak genituen eta sentimendu horiek berriz berpizteko irrikitan gauden". Zuzendariak esan digunez, "gainera, izarren leloarekin, eguberrietan antzezteko oso aproposa ikusten genuen".

Dantzariek "unibertsoan barneratu eta izarrekin" dantzatu dute. "Dantza egiten dugunean Unibertsoaren parte gara sentitzen dugu. Izarren hautsa besterik ez baikara". Unibertsoan barneratu, izarrekin dantzatu eta munduko dantzak elkartu zituen Gonzalezek, azken batean munduan "guztiak berdinak gara eta sentimenduak berdinak dira".

Konpainiako 13 dantzariekin batera beste sei ariko dira, bi txiki eta lau gonbidatu. Joan den urteko dantzari berak izanen



Dantzarimako dantzariek obrako pasarte batean. FERNANDO MORENO

dira Izar hautsa dantza emanaldia eszenan emanen dutenak. Dantza garaikidea oinarri izanik, hainbat dantza teknikek bat egiten dute asteartean eskainiko duten ikuskizunean.

Dantzarima

Dantza taldea 2013an sortu zen eta Gonzalez da zuzendari hasieratik. Aurreneko obra sortzen, eta, bide batez, trebatzen, bi urte eman zituzten. Horren emaitza *Sustraiak* izan zen, 2015eko garagarriaren 6an mustu zutena. Hainbat herrietan eskaini zuten

emanaldi hura. *Izar Hautsa*, konpainiaren bigarren obra, 2016ko lastailaren 8an mustu zuten. Altsasun hori ere. Hura ere han-hemen mugitu dute. Herriko herri inauterian ezinbesteko bihurtu da konpainia. Eta beste makina bat proiektuetan parte hartu du.

Hala, emanaldiaren ondoren ihotetako antzezpene prestatzen hasiko dira. "Eta martxa hartuta gure hirugarren obrarekin buru-belarri jarriko gara, Mila-kolore elkartearen laguntzaz", aurreratu digu Gonzalezek.



Jordanian despedituko du Nazabalek urtea

Garilean Maroko Assilahn hiru asteko arte egonaldia egin ondoren, Ammanen gauza bera egingen du. Han sortutako margolanak Jordanian geldituko dira. Erakusketa txiki bat eta performancea egin asmoz joan da

ALTSASU

Itziar Nazabal Regueira margolariak nazioartekotze bidea 2005 edo 2006 urtean hartu zuen. Ordutik Katalunian, Espainian, Frantzia, Italian edo Marokon egonaldiak egin ditu. Baina bere margolanak beste hainbat herrialdeetan izan dira ikusgai. Asteazkenetik aurrera bere atzerriko ibilbideari beste etapa bat gehituko dio: Jordania. Hango sortzaile baten lagun egin eta haren bidez bere sormen lanaren inguruko bideo bat arte babesle bati iritsi zitzaion.

“Asko gustatu zaio nire obra eta arte-egonaldi baterako gonbidatu naute. Baloratua sentitzen zara”. Abenduaren 20tik ilbeltzaren 14ra arte izanen da Amman hiriburuan. Nazabalek esan digunez, “sortzera eta disfrutatzera” joan da. Arabiar mundua gustuko duela aitortu digu Nazabalek. Eta margotzen hasi aurretik jendearekin harremanetan jarri nahi du, inspirazioa opatzeko. Sortutako lanak Jordaniako hiriburuan geldituko dira. Haiekin erakusketa txiki bat egin eta performancea egitea ez du baztertzeko. Ammango egonaldia aurkezpen txartel gisa, proiektu berrietarako ate gisa du altsasuarrak. Bestela ere, “urte oparo bat” ixteko modua izanen da.

Maroko

Assilahko (Maroko) nazioarteko arte jaialdian izan zen margolaria garilean. Musika eta pintura biltzen dituen jaialdi horretan nazioarteko pertsonaien hitzaldiak egon ziren ere. Nazabalek duela bederatzita urte parte hartu zuen estreinako jaialdian. Ordukoan kalean mural bat margotu zuen. “Nere lana segitzen dute, gustatzen zaie eta berriro gonbidatu naute”.

Eta, oraingoan, hiru asteko arte-erresidentzia batera gonbidatu zuten. Altsasuarrarekin



Nazabal Assilahn margotzen, lekukoekin. UTZITAKOIA

"BERRIRO GONBIDATUTA IZATEA BALORATUA SENTIARAZTEN NAU. NIRE LEKUA EGIN DUT"

batera, Italia, Japonia, Senegal, London, New York, Maroko, Tunez edota Jordaniako margolariak izan ziren. Azken horiek asto gainean jarritako mihise gainean pintatzen zuten bitartean, Nazabal inspirazioaren zain gelditu zen. Gainera, bere margotzeko teknikagatik bestelako materialak ere behar ditu, eta azpiegitura nahikoa ez zuen (plastikoa eta beste). Guztia batu zuenean, egoitzako lorategian plastikoa zabaldu, haren gainean mihisea jarri eta margotzeari ekin zion. Altsasuarraren teknikak gainontzeko pintoreen arreta bereganatu zuen. Han sortutako lanak Assilah bertan gelditu dira, museoan.

Nazabalen Assilahko egonaldiak hedabideetan arreta izan zuen. “Ohorea, pribilegio bat da han egotea. Berriro gonbidatuta izatea nire lanaren aitortzat dut.

Baloratua sentitzen naiz. Nire lekutxoa egin dudala”. Pintore altsasuarrak azaldu duenez, egonaldiak proiektu askotarako atek zabaldu zizkion: Casablancako galeria bat edota beste arte-egonaldietan parte hartzeko aukera. Gainera, aspaldi ikusi gabeko lagunekin egoteko aukera eta lagun berriak egiteko aukera izan zuen.

Txina

Altsasuko margolariak esan digunez, bere obrak Txinan duela hiru urtetik du presentzia. “Harrera ona dauka. Erakusketetan ikusgai izan da”. Azaroko Shenzhengo nazioarteko arte feria nabarmendu digu Nazabalek. Bera zegoen gonbidatutako artisten artean eta, gainera, bere obraren argazkia erakusketako katalogoan argitaratu zuten (hiru biluziko sail batetik saltzeko falta den azkena). Asiako herrialdean altsasuarraren obra erosi dutenen artean goi mailako bildumagile bat dagoela esan digu, “Picassoren koadroak eta halakoak dituen bat”. Bere ordezkariak esan dionenez, bildumagile horrek interesez segitzen omen du bere lana.

Altsasuko auziko elkartasun kantuak diskoan jasoak

Hainbat sortzailerengan kezka sortu du Altsasuko auziak. Eta musikariek kantu bidez adierazi dute hori. Haietako hiru disko batean jaso ditu Altsasukoak Aske herri asanbaldak. Batetik, irailaren zazpian aurkeztu zen *Aurrera Altsasu!* kantua dago. Jon Maia bertsolariaren letra eta Pello Reparaz doinua duen abestia hainbat ahots ezagunek kantatzen dute. Horrekin batera, Los del Rayoren *La gran mentira* eta Nafarroa 1512 taldeak Adur Ramirez de Aldaren hitzekin sortutako *Aske* doinua. Durangoko Azokan edo Los del Rayo sinfonikoa kontzertuan izan da salgai, baita ostiralero kontzentrazioetan ere.

Etxarriko elkartasun jaialdirako sarrerak salgai daude

Etxarri Aranazko Sarek, senideek eta lagunek *Zama doinuz arindu* kontzertu-ikuskizuna antolatuko du hirugarren urtez “euskal presoei aplikatzen zaien salbuespenezko legedia salatzeko”. Kontzertu bikoitza, 17:30ean eta 19:30ean, ilbeltzaren 14an izanen da. Hartan Mikel Urdangarinek, Niko Etxartek, Alex Sarduik eta Haimar Arejitak (Gatibu), Kutxi Romerok, Ines Osinagak, Pattik, Jurgi Ekizak (Willis Drummond) eta Irati Lasak eta lagunek parte hartuko dute. Sarrerak Etxarri Aranazko udaletxean salgai daude bulego ordutegian, baita www.etxarriaranatz.eus web orrian eta Xapatero eta Leku Ona tabernetan ere.



BAZTERRETIK

JUANKAR LOPEZ-MUGARTZA

Euskara batua?

Jai giroan, herri bazkari batean, nire emazteak “kutxilloa pasaidazu” esan zion lagun bati eta berak: “Hi, neska, hori ez dela hala esaten! Aiztoa dun euskaraz.” Orduan nire koinatuak erantzun zion: “ba, guk Etxarri beti *labana*.” Laguna tematu zen berean: *kutxilloa* erdarakada zela eta *labana* Euskara Batuan ez zela erabiltzen, aiztoa zela nagusi.

Koinatua, mahaitik altxatu zen orduan eta nik: “Baina nora hoa bazkariaren erdian?” Ez zidan kasurik egin eta joan bezala etorri zen bere iPad berria eskuan zuela. Paellaren platera eta ardo botila albo batera utziz, mahaiaren erdian lekua egin zuen bere tramankulua bertan ezartzeko. *Euskararen Herri Hizkeren Atlas* (EHHA) izena zuen orri bat ireki zuen orduan.

“Begira”, esan zuen, “euskalkien mapa honetan ikusten da *aiztoa* Bizkaiko bizpahiru herrietan besterik ez dela ezagutzen. Urdiainen *kutxilo*, Bizkaiko eta Gipuzkoako leku gehienetan bezala. Arbizun eta Dorraun *labana*, Tolosan, Donostian eta Nafarroako beste leku askotan bezala. Batasunaren izenean

betiko hitzak baztertu dira eta orain, euskaldun askok ez dakigu ezta euskaraz ere ote dakigun.

Batzuek galdetzen dute: nola esaten da “tenedorea” euskaraz? Eta erantzuten dugu: *sardexka*. Baina hitz hori Aian baizik ez da ibiltzen, eta han beti brometan bezala, sarde txiki bat balitz bezala. Nola esaten da “karakola” euskaraz? Eta erantzuna: *barraskiloo*. Baina hitz hori Busturian baizen ez da erabiltzen. Leku guztietan *kakola*, *karakola*. Oñatin, bai, *marraskiloo*; herri bat Euskal Herri osoan. A zer pare! *Karakola* eta *bara!*

Nola esaten da “kukaratxa” euskaraz? *Labezomorro*? Ba, kukaratxa da nagusi Sakanan eta ia-ia Nafarroa eta Bizkaia osoan ere. Elhuyar hiztegian *mokotarro* agertzen da... baina non demontre erabiltzen da hori? Eta “bideberria”, nola? Ba, jakizue, *bideberria* oso hedatua dagoela eta EHHA-n ez dela *errepidea* jasotzen, *eregebidea* edota *errebidea* baizik. Behe Nafarroan eta Zuberoan bideberria. Bizkaian bidebarria. Eta nola esaten da “kunkun” euskaraz? Ba, *kunkun* eta *kitto*.”



UTZITAKOA

Gure aittun-amiñak koadroetan

Jokin Alegria, Kale, margolari lakuntzarraren serie bat da "Gure aittun-amiñak" izenburukoa. Alegriak azaldu digunez, "Sakanako herri bakoitzeko pertsona zaharrenak erretratatzeko da helburua". Proiektua bukatu gabe dago, baina dagoeneko sortu dituen 10 erretratuak ikusgai jarri ditu Lakuntzako Kale tabernan. Olio pintatutako erretratuak dira, "urteen joanak euren aurpegietan utzitako arrastoak eta haritzak bezain sendo egiten dituen barne indarra jasotzen saiatu naiz" esan digu margolariak. Larunbatz geroztik daude ikusgai margolanak tabernan eta erakusketa noiz kenduko duen ez duela zehazturik esan digu Kalek.

Erretratu egile lakuntzarrak aitortu digunez, esku artean duen "proiektu zaila da". Alde bategatik, erretratu egiteak duen berezko zailtasuna dagoela azaldu digu. Bestetik, herrietako adinuenak zein diren jakiteko, informazio hori lortzeko zailtasunei beste bat gehitzen zaiela aitortu digu, pertsona horiei "argazkia egin, hartan oinarrituta pintatu eta gero koadroa erakusteko baimena lortzea". Alegriak jakinarazi digunez, "enkarguek uzten badidate, Sakanako guztiko herriak eta pertsonak osatu arte segitzea da nire asmoa". Orain arte erretratatuak pertsonen eta haien senideei eskerrak eman dizkie margolariak.

Trasteando taldearen xarma duten kanten txanda

Hamabigarren aldiz Trasteando taldeak eguberri kontzertua eskainiko du, bihar, 19:30ean, Altsasuko Iortia kultur gunean. Aurtengo emanaldirako ahalegin berezia egin du taldeak eta erreperorioaren erdia baino gehiago berria izanen da. Dirua Arua Elkartasuna eta Acción contra el Hambre erakundeendako izanen da. +www.guaixe.eus



Sarrera guztiak saldu dira.

Ilustratzaile eta idazle txikiak album egile bihurtuta

Azkar-azkar bete zen ikastaroa. Yolanda Arrieta idazlearekin eta Aitziber Alonso ilustratzailearekin batera 25 haur ariko dira, 6 eta 10 urte artekoak. Denek album ilustratua osatuko dute abenduaren 29an Altsasuko Iortia kultur gunean. Mankko Euskara Zerbitzuak antolatu du lantegia eta Altsasuko Udaren laguntza izan du.



Morkotsen zinta liburu sorta bat, banatu aurretik.

Morkotsen zinten bilduma berria kalean da

Sakanako liburu-dendetan dago: Martxueta (Irurtzun), Kaxeta (Etxarri) eta Arkatz eta Liburunda (Altsasu)

ALTSASU

Guaixe astekaria da 2004ko ilbeltzaren 23az geroztik. 2012ko martxoaren 30era arte umore grafikoko zinta bat agertu zen astero-astero 4. orrian. Gehienek Morkotsen sinadura zuten.

Sakandarrak, ohiturak baita nazioarteko gertakariak ziren zinta haietarako argudioa. Orain haien bilduma batekin gozatzeko aukera ematen dizu Guaixe fundazioak. Izan ere, *Morkotsak arantzak ditu* zinta-liburuxka argitaratu baitu. Bertan Jose Mari Morcillok zortzi urtez ondutako lanaz gozatzeko aukera izanen da. 260 zintetan garaiko, oraingo, lekukotza irri edo arantza batekin jasotzeko modua da.

Argitalpen horrekin eta fundazioak 2014ean argitaratutako zinta liburuak beste 76 lanekin, osatuta gelditu da Morkotsen lanen bilduma. Aurreko argitalpenean Arturo Arrizabalaga-

rekin, Jarturrekin, elkarbanatu zuen lana: Sakana Morkots eta Jarturren begiez (bazkideendako 8 eurotan, besteendako 10ean). Aurrekoa bezala, ibarreko liburu-dendetan dago salgai; Guaixe fundazioako lagunendako 10 eurotan, kide ez direnendako 12. Bestela, Guaixe fundazioaren bulegoan egin dezakete bazkideek erreserba (Foru plaza 23, 1. Altsasu; fundazioa@guaixe.eus edo 948 564 275 telefonoan.

Eskaerak

Guaixe fundazioak bi zinta-liburuak eskuratzeko eskaerak egin du. Astekariko umore grafikoa jasotzen dituzten bi zinta-liburuak 13 eurotan eros ditzakete bazkideek, 15ean ez direnak. Bi horiekin batera Alfredo Alvaro Igoaren *Potroak odoletan* liburuak eskuratzen duenak, hirurengatik % 25eko beharpena izanen du.

Album ilustratu bat sortzeko tailerra

Abenduak 29 (ostirala) 17:00-19:00
Iortia kultur gunea

6-10 urte bitarteko haurrendako (LH1-4)
Izen-ematea Iortia kultur gunean abenduaren 26a arte
(948 564272 iortia@altsasu.net)

Tailergileak: Yolanda Arrieta eta Aitziber Alonso



Antolatzailea: Sakanako Mankomunitatea
Laguntzailea: Altsasuko Udala

“Saudi Arabian ez dute zinema kulturarik”

Hainbat pelikuletan arte departamentuan dekoratuak egiten parte hartu du Fernando Zoilo altsasuarrak. Tarte bat hartu zuen, baina duela hilabete batzuk proposamen berezia jaso zuen: Saudi Arabiako lehenengo pelikulan parte hartzea. Baietz esan zuen

Erkuden Ruiz Barroso

1 Nola iritsi zinen proiektu hone-tan?

Zineman urte asko lan egin dut, eta hots egin zidaten. Erronka handia izan da. Oso leku itxia da bizimodua aldetik.

2 Nola izan da han lan egitea?

Oso arraroa. Egunean bost aldiz otoitz egiten dute, 40 minutuz. Beraz, denda batean baldin bazaude ixten dute eta barruan gelditzen zara. Nazio berria, XX. mendean sortu zuten basamortuko beduinoak elkartzu.

3 Zailtasunak izan dituzue, beraz.

Behar genuena lortzea zaila zen. Zegoenarekin egin behar genituen gauzak, gehien bat palmerak. Eta jendeak lan kultura desberdina du. Zerbait egiteko esaten genien eta mintzen ziren. Pentsatzen dute haiek ez dutela hori egin behar. Oso lasaiak dira ere. Gainera, leku batetik beste batera joateko ordu edo ordu eta erdiko bidaia egiten genuen. Oso gaizki gidatzen dute.

4 Beroak ere eragina izango zuen?

Irailaren 17an joan nintzen. Egunean zehar 45-50 gradu egi-



Fernando Zoilok Saudi Arabiako lehenengo pelikulan parte hartu du. ERKUDEN

ten zituen eta gauean 40. Lanean eragina izan du, baina ohitzen zara. Bero lehorra da, eta egokitzen zara. Lehen egunetan ur asko edaten genuen... baina gero ohitu ginen eta jasagarria zen. Gainera ez du erretzen.

5 Saudi Arabian ez dago zinema kulturarik. Pelikula hutsetik egin behar izan duzue. Zein zen zure lana?

Gehien bat altzariak egitea. Izan ere, bertan ezin da ezer alokatu.

Hortaz, argazki zaharretan liburuetan eta abarretan oinarrituz gauzak egiten ditugu. Gameluendako askak, gameluen gainean eramateko eserlekuak... horrelako gauzak. Bertako printzipe batek ordaindu du filma, beraz, gauzak lortzeko edozein lekutan atea irekiak genituen.

6 Zenbat aritu zarete filmean?

Gure departamentuan, nagusien eta langileen artean ha-

mar bat ginen. Filmaren zati bat Ingalaterran grabatu da eta beste zatia Saudi Arabian. Beraz, ekoizpen ingelesa eta espainiarra da. Saudi Arabiako jendea ere zegoen lanean, printzesa bat, esaterako. Bera arduratzen zen biografia egiazkoa izateaz.

7 Beraz, Saudi Arabiako errege bati buruzkoa da filma?

Faisal I.a erregeari buruz, bai. Ume bat zela Ingalaterrara bidali zuten une hartan Ingalaterrak Turkiari armak saltzen ziolako eta Turkiak Meka Saudi Arabiari kendu ziolako. Beraz, printze bat zela, umea, Ingalaterrara bidali zuten gauzak kontpontzeko. Horregatik, ere ekoizpenaren erdia Ingalaterrakoa da eta bertan grabatu da. Haiek pentsatzen dute pelikula bat liburu bat bezalako dela, eta biografia bat denez, gertatu zen bezala izan behar dela. Ez dute ulertzen akzio pixka bat izan behar duela, fikzioa sartu behar dela ere pelikula hori deigarria izateko.

8 Born a King Saudi Arabiako lehenengo filma izanen da. Zergatik orain?

Printze berria, errege izango dena, 30 urteko gazte bat da. Herrialdea modernizatu nahi du, eta beste gauzen artean zinema sartuko du. Martxorako mila inguru multi-zinema irekitzea pentsatuta dute. Pelikula honekin mustuko dituzte. 20 milioi euro gastatu ditu pelikula egiten. Gainera, beste jeke batek ekoizpen etxe bat oparitu dio bere semeari. Hemengoak baino askoz hobea. Polizia erlijiodunari, orain arte izugarrizko boterea zuena, boterea kendu

dio eta modernizatzeko hartu dituzten neurrien kontra dauden guztiak atxilotu ditu. Ritz hotellean atxilotuta daude. Herrialdean iraganean bezala bizi da. Dena erlijioaren inguruan mugitzen da.

9 Non grabatu duzue?

Ibizara joaten den printze batek erreproduzitu duen hiri batean. Hamar urte eman ditu. Oso ongi gelditu zaie, adobeakoa da. Eta bertan grabatu dugu, gehien bat. Hiria, berez, oso modernoa da. Eraikinak kristalezkoak dira, forma arraroak dituzte...

10 Saudiekin harremana izan duzue? Nolako izan da?

Kalean ez zegoen jenderik. Ez genuen ulertzen non sartzen ziren. Bestela, herrietara joaten ginenean jendea oso abegitsua zen. Gainera, turismoa debekatu dago eta ez daude mende-baldeko jendea ikustera ohituta. Hau da, herrialdean sartzeko bertako norbaiten gonbidapena behar duzu eta lanerako edo negozioetarako sar zaitezke, besterik ez. Beraz, ikusten zaituztenean tea, datilak... ematen dizkizute.

11 Nolako esperientzia izan da?

Aberasgarria. Egia esan bertan bi hilabete egon ondoren, azken asteetan itzultzeko gogoak nituen. Gainera, hemen ez dugu ezer entzun, baina Saudi Arabia eta Yemen gerran daude; eta Yemenek misil bat bota zuen eta aireportuan erori zela esan zuten. Saudi Arabiak erori aurretik ikusi zutela esan zuen. Dena dela, eztanda entzun genuen. **Osorik:www.guaixe.eus**

Bazkide sarituak

- Gure Nahia jubilatuta elkartea (Lakuntza)
- Juan Miguel Markotegi Ijurko (Etxarri Aranatz)
- Ainhoa Ulaiar Beltza (Leitza)
- Junkal Arregi Razkin (Lakuntza)

ABENDUKO SARIAK:

1. SARIA:

EKAINBERRI: 2 SARRERA
 ARTAZAKO KANPINA: %10EKO DESKONTUA
 LACTURALE-ESNEKI LOTEA
 GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN

2., 3. ETA 4. SARIA:

ARTAZAKO KANPINA: %10EKO DESKONTUA
 LACTURALE-ESNEKI LOTEA
 GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN

CAMPING
 ARTAZA

Ekain berri

gaztezulo



lacturale